Orona
fundazioa

# JARDUERAREN MEMORIA
# MEMORIA DE ACTIVIDADES
# 2017



Orona fundazioa

# 2017

## JARDUERAREN MEMORIA

## MEMORIA DE ACTIVIDADES

# Aurkibidea
# Índice


01
AGURRA
SALUDA
06

02
FUNDAZIOAREN HELBURUEN ETA GOBERNU-ORGANOEN AURKEZPENA
PRESENTACIÓN FINES FUNDACIONALES Y ÓRGANOS DE GOBIERNO
07

03
PATRONATUAREN OSAERA
COMPOSICIÓN DEL PATRONATO
08

04
JARDUN-ESPARRUAK ETA -EREDUA
ÁREAS Y MODELO DE ACTUACIÓN
09

Orona fundazioa


05
BARNE-GARAPENA
DESARROLLO INTERNO
10

06
KANPO- GARAPENA
DESARROLLO EXTERNO
14

06.1 Instituzionala
Institucional
14

06.2 Nazioartekoa
Internacional
15

06.3 Unibertsitatekoa
Universitario
15

06.4 Ingurukoa
(Orona Fundazioa Gizarterantz)
Entorno
(Orona Fundazioa Gizarterantz)
17

07
KUDEAKETAKO
BESTE ALOR BATZUK
OTROS AMBITOS
DE GESTION
18

07.1 Ekitaldien kudeaketa
Gestión de eventos
18

07.2 Taberna
Cantina
18

07.3 Harreman instituzionalak eta publikoak
Relaciones institucionales y RR.PP.
20

08
MARTXAN DAUDEN
PROIEKTUEN HELBURUAK
OBJETIVO DE LOS
PROYECTOS EN CURSO
21

08.1 Aberastasuna sortzea
Generación de riqueza
24

08.2 Garapen soziokulturala
Desarrollo sociocultural
24

08.3 Garapen akademikoa
Desarrollo académico
24

09
EKARPEN-EREDUA
EL MODELO DE
CONTRIBUCIÓN
25

10
PROIEKTUAK
PROYECTOS
26

010.1 Diametro 200
Diámetro 200
26

010.2 Kultura musikala
Cultura musical
28

010.3 Ondare ez-materiala
Patrimonio no material
31

010.4 Akademikoa
Académico
36

010.4 Kohesio soziala
Cohesión social
38

11
JARDUEREN ZERRENDA
LISTADO DE ACTIVIDADES
41

# 01 AGURRA
## SALUDA

ORONA proiektu kooperatibo bat da, eta konpromisoa, konfiantza, fidagarritasuna, malgutasuna eta bizitasuna dira haren funtsezko balioak, enpresaren posizionamendua sentsibilizatua eta konprometitua izateko. Balio horiek dira, printzipio kooperatiboekin batera, gure ingurunearekiko dugun erlazioaren oinarria.

Konpainia gisa, ahaleginak egiten ditugu gure elkarrizketa etenik gabekoa, aktiboa eta konfiantzan oinarritua izan dadin. Orona osatzen dugun guztion parte-hartzeari eta konpromisoari esker, Oronaren etorkizuneko proiektua eraikitzen jarraitzen dugu. Gure lantaldeak badu talentua, eta gure balio-proposamenarekin konprometitua dago; ingurune pertsonala eta profesionala, berriz, duina, adeitsua eta bateratzailea da. Esan gabe doa, badakigu konpromisoa dugula gure gizarteari gure elkartasuna eta laguntza emateko.

Gizarte-erantzukizun kolaboratiboaren baitan, errespetua eta ingurumena zaintzeko jardunbide egokiak funtsezkoak dira. 2017an zehar lanean jarraitu dugu alderdi horretan aurrera egiteko: gure produktuen fabrikazioan eta gure sistemen eraginkortasun energetikoan sartu dugu sentsibilitate hori.

Orona Fundazioak egiteko garrantzitsua du, gizarteari zerbitzu ematen baitiogu, eta, halaber,

gure Proiektua osatzen duten pertsonei. Orona Fundazioaren jarduerak gure inguruko eremu instituzionalera, nazioartekora eta hezkuntzakora iristen dira, eta, gainera, hezkuntza- eta garapen-proiektuak eta ekimen kultural eta sozialak babesten ditu.

2017an Orona Ideoren laugarren urteurrena izan da, zeina gure berrikuntza-ereduaren oinarria baita. Iraunkortasunaren alde egiten dugun lanaren erakusgarri da, eta erabat integratuta dago gure proiektuan. Etengabe gizartearekin harremanetan egoteko aukera ematen digun ekosistema bat sortzen du. Etorkizunarekiko eta ingurunearekiko konpromisoa funtsezkoak dira ORONArentzat; beraz, ingurune kolaboratiboen bitartez jakintza sortzearen alde egiten dugu, unibertsitatearen, ikerketaren, enpresaren eta gizartearen arteko harremanean oinarrituta.

Atsegin handiz aurkezten dizuegu memoria hau, non horiek alderdi guztiak azaltzen baititugu, gure ekintzek iraunkortasuna indartuko dutelakoan enpresa-munduan eta gizartean.

Pixkanaka aurreratzen ari gara, badakigu eta oraindik egiteko handia dagoela.

Xabier Mutuberria

*Oronako zuzendari nagusia*

ORONA es un proyecto cooperativo que integra el compromiso, la confianza, la fiabilidad, la flexibilidad y la agilidad como valores esenciales para conseguir un posicionamiento empresarial sensibilizado y comprometido. Estos valores junto con los principios cooperativos forman la base que sustenta la relación que mantenemos con nuestro entorno.

Como compañía, tratamos de practicar constantemente un diálogo activo y basado en la confianza. Gracias a la participación e implicación de todos los que integramos Orona, seguimos construyendo el Proyecto futuro de Orona. Constituimos un equipo con talento y comprometido con nuestra propuesta de valor, en un contexto personal y profesional digno, respetuoso y conciliador Y, por supuesto, nos sabemos comprometidos a aportar nuestra solidaridad y colaboración con la sociedad en la que estamos inmersos.

Dentro de la RSC, el respeto y las buenas prácticas en el ámbito del medio ambiente son primordiales. En 2017 hemos seguido trabajando para avanzar en este aspecto incorporando esta sensibilidad en la fabricación de nuestros productos y en la eficiencia energética de nuestros sistemas.

En este contexto, Orona Fundazioa desempeña un rol esencial, ya que desde ella damos servicio a la sociedad, además de a las personas que forman parte de nuestro Proyecto. Orona Fundazioa realiza acciones que alcanzan los ámbitos institucional, internacional o educativo de nuestro entorno, y además, es el respaldo de proyectos de formación y desarrollo, así como de diversas iniciativas de carácter cultural y social.

En 2017 hemos celebrado el cuarto aniversario de Orona Ideo, que representa el pilar fundamental de nuestro modelo de innovación. Encarna nuestra firme apuesta por la sostenibilidad, plenamente integrado en nuestro proyecto. Genera un ecosistema que nos permite estar en contacto permanente con la sociedad. El compromiso con el futuro y el entorno son esenciales para ORONA, y por eso apostamos por la generación de conocimiento a través de entornos colaborativos basada en la relación entre la Universidad, la Investigación, la Empresa y la Sociedad.

En la presente memoria, que tenemos el placer de trasladarles, desarrollamos todos estos aspectos con la esperanza de que nuestras acciones contribuyan a una mayor presencia de la sostenibilidad tanto en el mundo empresarial como en la sociedad.

Seguimos poco a poco avanzando, conscientes de que aún queda mucho por hacer.

Xabier Mutuberria

*Director General de Orona*

# 02 FUNDAZIOAREN HELBURUEN ETA GOBERNU-ORGANOEN AURKEZPENA
## PRESENTACIÓN FINES FUNDACIONALES Y ÓRGANOS DE GOBIERNO



Estatutuen arabera, irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da Orona Fundazioa, eta honako hau da haren helburua: gizartearen beharren bilakaerak eskatzen dituen jakintza-arlo guztietan hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak sustatzeko jarduera eta ekimen guztiak egitea.

Ildo horretan, Fundazioaren helburuek barnean hartzen dute hezkuntza- eta ikerketa-zentroak sustatzea eta kudeatzea; hezkuntza-, prestakuntza- eta ikerketa-jarduerak egiteko baliabide materialak antolatzea; eta kongresu, mintegi, ikastaro, jardunaldi eta hitzaldiak eta estatu barruko eta nazioarteko nolanahiko topaketak babestea eta antolatzea.

Horrez gain, Fundazioaren helburua da ekonomia soziala eta kooperatibismoaren ezaugarrien hedapena sustatzea eta babestea, lan-munduan sartzea sustatzea, eta era guztietako kultura-, gizarte-, ongintza- eta laguntza-jarduerak babestea.

Fundazioaren bitartez, ORONAK gizartearekin duen konpromisoa indartu nahi du, bere hezkuntzako, eskualdeko eta erakundeko, nazioarteko eta ikerketako garapenerako oinarriak sustatuz.

De acuerdo con lo previsto en los estatutos fundacionales, Orona Fundazioa tiene como fin la realización, sin ánimo de lucro, de todas aquellas actividades e iniciativas tendentes a promover y fomentar acciones en materia de educación, formación e investigación en todas las áreas del conocimiento en consonancia con la evolución de las necesidades de la sociedad.

Dentro de los fines fundacionales se entenderán incluidas las actividades tendentes a la promoción y gestión de centros de educación e investigación, a la instrumentación de los medios materiales para el desarrollo de las actividades de educación, formación e investigación, así como apoyar y organizar congresos, seminarios, cursos, jornadas, conferencias y todo tipo de encuentros nacionales e internacionales.

Igualmente, la Fundación tiene como fin la promoción y apoyo de la economía social y la difusión de las características del cooperativismo, la promoción de la inserción profesional así como el apoyo de toda clase de actividades culturales, sociales, benéficas o asistenciales.

A través de la Fundación, ORONA pretende reforzar su compromiso con la sociedad fomentado los pilares básicos para su desarrollo educativo, comarcal e institucional, internacional y de investigación.

# 03 PATRONATUAREN OSAERA
# COMPOSICIÓN DEL PATRONATO

2017ko abenduaren 31n, hauek ziren Patronatuko kideak:

- Lehendakaria:
  Oier Lizarazu Iztueta, Jasotze Sistemak eta Hiriko Mugikortasuna SK Dibisioko Artezkaritza Kontseiluko lehendakaria.
- Presidenteordea:
  Xabier Mutuberria Etxeberria, Jasotze Sistemak eta Hiriko Mugikortasuna SK Dibisioko zuzendari nagusia.
- Idazkaria:
  Urko Rodríguez Leunda, Jasotze Sistemak eta Hiriko Mugikortasuna SK Dibisioko Artezkaritza Kontseiluko idazkaria.
- Erakunde-patronoak honako hauek ziren —Jasotze Sistemak eta Hiriko Mugikortasuna SK Dibisioko Artezkaritza Kontseiluko kideak guztiak—:
  . Fernando Ganzábal García
  . Luis Miguel de la Serna Ortiz
  . Fco. Javier Ormazabal Esteban
  . Xabier Elizegi Beloki
  . Ricardo García Díaz
  . Jesús Javier Olano Guergue
  . Mª Dolores Jimenez Pajares
- Korporazio-patronoak, berriz, hauek ziren —Jasotze Sistemak eta Hiriko Mugikortasuna SK Dibisioko Zuzendaritza Kontseiluko kideak guztiak—:
  . Roberto Pérez Fabián
  . Ane Yarza Ansa
  . Mikel Tolosa Albistur
  . José Miguel Lazkanotegi Muxika
  . Igor Etxabe Irastorza
- Batzorde Betearazleko kideak, hauek:
  Lehendakaria:
  . Xabier Mutuberria Etxeberria
  Idazkaria:
  . Igor Etxabe Irastorza
  Batzordekideak:
  . Ane Yarza Ansa
  . Mikel Tolosa Albistur
  . Roberto Pérez Fabián
  . José Miguel Lazkanotegi Muxika

A 31 de diciembre 2017, el Patronato responde a la siguiente composición:

- Presidente:
  Oier Lizarazu Iztueta, Presidente del Consejo Rector de la División de Sistemas de Elevación y Movilidad Urbana S.Coop.
- Vicepresidente:
  Xabier Mutuberria Etxeberria, Director General de la División de Sistemas de Elevación y Movilidad Urbana S.Coop.
- Secretaria:
  Urko Rodríguez Leunda, Secretario del Consejo Rector de la División de Sistemas de Elevación y Movilidad Urbana S.Coop.
- Patronos Institucionales, todos miembros del Consejo Rector de la División de Sistemas de Elevación y Movilidad Urbana S.Coop.
  . Fernando Ganzábal García
  . Luis Miguel de la Serna Ortiz
  . Fco. Javier Ormazabal Esteban
  . Xabier Elizegi Beloki
  . Ricardo García Díaz
  . Jesús Javier Olano Guergue
  . Mª Dolores Jimenez Pajares
- Patronos Corporativos, miembros del Consejo de Dirección de la División de Sistemas de Elevación y Movilidad Urbana S.Coop.
  . Roberto Pérez Fabián
  . Ane Yarza Ansa
  . Mikel Tolosa Albistur
  . José Miguel Lazkanotegi Muxika
  . Igor Etxabe Irastorza
- La Comisión Ejecutiva está representada por:
  Presidente:
  . Xabier Mutuberria Etxeberria

  Secretario:
  . Igor Etxabe Irastorza

  Vocales:
  . Ane Yarza Ansa
  . Mikel Tolosa Albistur
  . Roberto Pérez Fabián
  . José Miguel Lazkanotegi Muxika

# 04 JARDUN-ESPARRUAK ETA -EREDUA
## ÁREAS Y MODELO DE ACTUACIÓN

Inguruko gizarteari garatzen laguntzea da Orona Fundazioaren helburua, gizarteari on egiten diona ona delakoan ORONArentzat berarentzat.

Ingurua hainbat alorretan garatzea da Orona Fundazioaren asmoa: sozioekonomiaren, kulturaren, hezkuntzaren, gizartearen eta kirolaren alorretan. Horretarako, eredu proaktibo bat du oinarri, gizarte-eragileekin elkarlanean aritzeko proiektuetan oinarritua, eta **bere azpiegiturak, harremanak, giza kapitala eta,** beharrezkoa bada, **funts-bilketa jartzen ditu.**

Barne-zerbitzua eman nahi duen aldetik, ORONAko giza kapitalaren garapen integrala da Orona Fundazioaren beste helburu nagusia.

Ildo bakoitzaren esparruan, bada Orona Fundazioak jardunerako beharrezko baliabideak jartzeko edo erakartzeko eredu bat.

El fin de Orona Fundazioa es ayudar al desarrollo de la sociedad que la rodea, entendiendo que lo que es beneficioso a dicha sociedad lo será para la propia ORONA.

Orona Fundazioa pretende desarrollar su entorno en términos socio-económicos, culturales, educativos, sociales y deportivos, en base a un modelo proactivo, basado en desarrollo de proyectos en colaboración con los agentes sociales, **aportando su infraestructura, capacidad relacional, capital humano y la captación de fondos** si fuera necesario.

En su vocación de servicio interno el desarrollo integral del capital humano de ORONA es el otro gran objetivo de Orona Fundazioa.

En cada línea se fija el modelo con el que la Fundación Orona aporta o capta los recursos con los que desarrollará su actividad.




Arlo bakoitzean finkatutako helburuak lortzen laguntzeko ekimen zehatzen inguruan ardazten da Fundazioaren lan-ildo bakoitza.

Ildo bakoitzaren esparruan, bada Orona Fundazioak jardunerako beharrezko baliabideak jartzeko edo erakartzeko eredu bat.

Barruko eta kanpoko helburuen ikuspegi orokorra du gidari Orona Fundazioak, funtzionamenduari koherentzia emanez.

Cada línea de trabajo de la Fundación se desarrolla en torno a iniciativas concretas que cumplen los objetivos definidos en cada ámbito.

En cada línea se fija el modelo con el que la Fundación Orona aporta o capta los recursos con los que desarrollará su actividad.

La Fundación Orona se gobierna con una visión global de los objetivos tanto externos como internos de la misma, dotando de coherencia a su funcionamiento.

# 05 BARNE-GARAPENA DESARROLLO INTERNO

Betidanik, elkarlanean aritzeko inguruneen alde egin du ORONA, jakintza sortzeko. Bada, eredu hori sendotzeko sortu da Orona Ideo.

Teknologiari begiratzen dioten **unibertsitateek** ikertu egiten dute, ezaupide berriez jabetzeko eta haiek produktu, prozesu eta zerbitzu berrietan baliatzeko.

**Teknologia-zentroak**, berriz, ikerketa aplikatuaren aroko liderrak dira, frogatzeko zientzia aplikagarria dela eta produktu eta prozesuak berritzeko gai dela.

**Enpresak**, azkenik, emaitzak produktu eta prozesuen berrikuntza bihurtzen dituen industria aurreko ikerketaren lider dira, eta emaitzak industrializatzea eta berrikuntza barneratzea ziurtatzen dute.

Orona Fundazioak abian jarritako ekimenak Ideo Factory kontzeptuaren hasierako fasean daude. Ekoizpen intelektualeko zentro bat da Ideo Factory, eta lau alorretan egituratzen du jarduna.

ORONA ha apostado históricamente por el uso de entornos colaborativos como manera de generación de conocimiento. Para potenciar este modelo se crea Orona Ideo.

Las **Universidades** con orientación tecnológica desarrollan actividades de investigación cuya finalidad es la adquisición de nuevos conocimientos que puedan ser útiles en nuevos productos, procesos o servicios.

Los **Centros Tecnológicos** lideran la etapa de Investigación Aplicada con el objetivo de demostrar la aplicabilidad de la ciencia y su capacidad para innovar productos y procesos.

Las **Empresas** lideran la Investigación Preindustrial que transforma los resultados en innovación de productos y procesos, y aseguran la industrialización de los resultados y la interiorización de la innovación.

Las iniciativas puestas en marcha por Orona Fundazioa, se enmarcan en la fase inicial del concepto Ideo Factory. Ideo Factory es un centro de producción intelectual que estructura su actividad en cuatro ámbitos diferentes.



Lehenik, **barne-garapenaren** alorrean **(I)**, Orona Fundazioaren jarduera guztiak biltzea du helburu, barne-ikuspegitik.

Bigarrenik, **komunitatearen garapenaren** alorrean **(II)**, inguru hurbilean eragina izan nahi du, ikastegien eta gizarte-eragileen bitartez, boluntarioak ardatz.

Hirugarrenik, **liburutegi-labotekan**, hezkuntza-arloko eta inguruko garapenaren alorrean **(III)**, ezaupideak sortzeko jarduerak egiten ditugu. Liburutegiak bi zerbitzu-sail nagusi ditu: jarduerak eta baliabideak.

El ámbito del **desarrollo interno (I)** pretende recoger en su integridad las actividades de Orona Fundazioa desde la perspectiva intramuros.

El ámbito del **desarrollo comunitario (II)** pretende incidir sobre el entorno más próximo, con los centros educativos y los agentes sociales con el voluntariado como pivote.

**La biblioteca-laboteca (III),** desde su encuadre en el desarrollo educativo y del entorno, será un centro de actividad generadora de conocimiento. La biblioteca dispondrá de dos grandes áreas de servicios: Actividades y Recursos.








Azkenik, **enplegagarritasunaren** alorrean **(IV)**, enplegagarritasunak hezkuntza bidezko garapena hobetzen duen aldetik, ORONAko enplegu-bulegoak profesionalki lan egiteko aukerak ematen dizkie ikasleei, haien prestakuntza osatzeko: praktikak eta ikerketa.

Barne-garapenaren aliatua da Diametro 200 proiektua. Haren bidez, ORONAko sukaldaritza kudeatzen da, zeinak bi helburu baititu: batetik, langile eta bisitariei elikagai osasungarriak ematea eta, bestetik, landa-munduaren garapena eta gizarteratzea sustatzeko traktorea izatea.

Orona Ideoren instalazioetan elikadura-zerbitzu on, garbi eta bidezkoa ematea da proiektu honen xedea.

**Empleabilidad (IV),** como enriquecimiento del desarrollo educativo, la oficina de empleo de ORONA facilitará diferentes oportunidades de trabajo en el ámbito profesional que adicionalmente contribuirán a la formación de los estudiantes: Prácticas e Investigación.

El desarrollo interno tiene un aliado en el proyecto Diámetro 200 mediante el cual se gestiona la restauración de ORONA, que cumple un doble objetivo. Por un lado, alimentar de manera sana y saludable a empleados y visitantes, y por otro ser un elemento tractor generador de desarrollo para el mundo rural y de la inserción social.

La misión de este proyecto es ofrecer en las instalaciones de Orona Ideo un servicio de alimentación bueno, limpio y justo.

Honako hauek dira oinarrizko bi ideiak:

1. ORONAk elikagai natural eta osasungarriak emango dizkie langileei. Filosofia horren barruan, lehentasuna izango dute sasoiko eta inguruko produktuek; batez ere, ekologikoki ekoitzitakoek.
2. Inguruko landa-garapenean lagunduko du ORONAk, enplegua finkatuz eta sortuz sektore horretan, lehentasuna emango baitie tokiko eta eskualdeko produktuei. Azken batean, aberastasuna sortuko du inguruan, Fundazioaren helburuekin bat.

Orona Fundazioak enpresen lasterketan parte hartzea sustatu du, eta 24 lagunek hartu zuten parte, 6 taldetan. Helburua da gure kideak jarduera fisikoa egitera animatzea.

Lau laguneko talde batek “Busti lankideekin” ekitaldian parte hartu zuen. Enpresentzako igeriketa-proba bat da.

Aurten, IV. ORONA Kontzertua egin da. ORONAko bazkide eta langileak eta inguruko gizartea elkartzeko eta ORONArekin zuzenean erlazionatutako bizipen sentikor bat partekatzeko eguna izaten da.

-

Las dos ideas de base son las siguientes:

1. ORONA proporciona una alimentación a sus empleados natural y saludable. Esta filosofía prima los productos de temporada y de origen geográfico próximo, e idealmente de producción ecológica.
2. ORONA, colaborará con el desarrollo rural de su entorno, consolidando y creando empleo en este sector, al primar productos de origen local-regional. En definitiva generando riqueza en su entorno, como lo prevé en sus objetivos la Fundación.

Desde Orona Fundazioa, se ha promovido la participación en la carrera de empresas y 24 personas tomaron parte, formando 6 equipos. El objetivo es animar a nuestras personas para que realicen actividad física.

También un equipo de 4 personas participó en la actividad “empresas que se mojan”. Se trata de una prueba de natación para empresas.

Este año se ha celebrado el IV Concierto ORONA, que pretende ser un día de encuentro entre socios, trabajadores de ORONA y la sociedad de su entorno, compartiendo una vivencia emocional relacionada directamente con ORONA.








Orona
ORONA
198
438
440
441
197
439




La mitad
de los refugiados
son niños







# 06 KANPO-GARAPENA
# DESARROLLO EXTERNO

## 06.1 ERAKUNDE-ARLOKOA INSTITUCIONAL

Erakunde-arloan garatzeko lan-ildoa jorratzeko, elkarlanean aritzen gara estatuko, eskualdeko eta tokiko erakundeekin.

Administrazio publikoekin (aldundiekin, udalekin, ministerioekin...)

. Enpresa- eta profesional-elkarteak (merkataritza-ganberak, profesionalen elkargoak eta abar)

. Enpresak

. eta abar

Erakunde horiekiko elkarlanaren ondorioz, martxan jarriko dira Orona Fundazioaren helburuekin bat datozen proiektuak.

. Partzuergo publiko eta pribatuak sustatzea.

. Lurraldea erakargarri egitea eta haren zabalkundea sustatzea.

. Europako esparru-programetan parte hartzea eta laguntzea.

. Azterketa sozioekonomikoetan parte hartzea.

. Esperientziak beste alor batzuetakoekin kontrastatzea.

. eta abar.

Gipuzkoako lurralde historikoan alor horietan lan egiten duten erakundeekin harremanetan jarraitu dugu, eta Orona Fundazioa aurkeztu diegu. Azken batean, sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlana gero eta beharrezkoagoa da lurraldea eta herrialdea garatzeko. Jarduera batzuk zenbait erakunderekin lankidetzan edo sinergian egin dira, hala nola Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Bidasoa, Oairtzualdea eta Donostia-Beterri eskualdeetako udalekin.




La línea de trabajo de Desarrollo Institucional se desarrolla estableciendo relaciones de cooperación con instituciones de ámbito nacional, regional y local.

Administraciones públicas (diputaciones, ayuntamientos, ministerios, etc.)

. Agrupaciones empresariales y profesionales (cámaras de comercio, colegios profesionales, etc.)

. Empresas

. etc.

La cooperación con estas instituciones deberá poner en marcha proyectos en sintonía con los objetivos de la Fundación Orona.

. Impulsando consorcios públicos y privados.

. Fomentando la tracción y difusión del territorio.

. Contribuyendo y participando en programas marco europeos.

. Participando en estudios socio económicos.

. Realizando un contraste de experiencias con otros ámbitos.

. etc.

Se han continuado los contactos y presentaciones de Orona Fundazioa a entidades de esta naturaleza que operan en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. La colaboración público-privada, se adivina, cada vez más, como una herramienta imprescindible, para el desarrollo del territorio y del país.
En concreto algunas de las actividades de desarrollan en colaboración o sinergia con entidades, tales como, Diputación Foral de Gipuzkoa, y ayuntamientos de las comarcas de Bidasoaldea, Oarsoaldea y Beterri-Donostialdea.




## 06.2 NAZIOARTEKOA INTERNACIONAL

Nazioartean garatzeko lan-ildoak bere egiten ditu erakunde-arloan garatzeko lan-ildoko helburuak eta metodologia, eta nazioartean aplikatzen ditu.

Alor honetan, Europako zer herrialdetan dagoen ORONA, haiek dira lan-ildo honen funtsezko ardatza.

-

La línea de trabajo de Desarrollo Internacional recoge los objetivos y metodología de la línea de Desarrollo Institucional, aplicándolos dentro del ámbito internacional.

La vocación fundamental del Desarrollo Internacional estará centrado en los países de Europa en los que ORONA tiene presencia.

## 06.3 UNIBERTSITATE-ARLOKOA UNIVERSITARIO

Hezkuntza-arloan garatzeko lan-ildoaren helburua unibertsitate-munduarekin harremanetan egotea da, bereizgarri paregabe hauek dituen proiektu bat garatuz:

Fakultate-eredu tradizionalarekin haustea, eta jakintza-arlo bat baino gehiago hartzen dituen gune bat eratzea.

. Lan-arloarekin lotzea, eta bermatzea ikasketak baliogarriak izango direla lanean.

. Estatuko nahiz nazioarteko hainbat unibertsitate eta hezkuntza-erakunderen esperientziak eta ereduak barneratzea.

. Etengabeko prestakuntzaren eredua finkatzea, pertsonak lan-ibilbide osoan prestatzen direla bermatzeko.

-

La línea de trabajo de Desarrollo Educativo quiere establecer vínculos con el mundo universitario desarrollando un proyecto con unos rasgos diferenciadores únicos:

Ruptura del modelo tradicional de facultad, estableciendo un espacio que mezcla disciplinas en un mismo espacio.

. Mestizaje con el ámbito laboral, asegurando la aplicabilidad de la enseñanza al entorno profesional.

. Integración de experiencias y modelos de diferentes universidades y entidades educativas, tanto nacionales como internacionales.

. Modelo de capacitación continua, asegurando la formación a lo largo de toda la vida profesional.




2017ko irailean, Mondragon Goi Eskola Politeknikoak (Mondragon Unibertsitatea) Orona Ideon ematen dituen graduetako bosgarren promozioa sartu zen. Egun, hauek dira ikasle-kopuruak:

| INGENIARITZA-MAILA | GUZTIRA |
|---|---|
| Energia | 128 |
| Ekoteknologia Industrialak | 68 |
| Enpresa Berrik. eta Proiektu Zuz. Masterra | 27 |
| Industria Masterra | 54 |
| Zibersegurtasuneko Masterra | 15 |
| **Guztira** | **292** |

ORONAren inguruneko jakintza-industriako eragileek elkar ezagutzeko ideiari eusten diogu, bai eta diziplina berriak sortzeko ideiari ere, "fakultateen fakultatea" helburu.

En septiembre de 2017, se ha incorporado la quinta promoción a los grados que se imparten en Orona Ideo, por Mondragon Goi Eskola Politeknikoa (Mondragon Unibertsitatea), siendo la población estudiantil la siguiente:

| INGENIERÍA CURSO | TOTAL |
|---|---|
| Energía | 128 |
| Eco-tecnologías Industriales | 68 |
| Master Innov Empr y Dir Proy | 27 |
| Master Industrial | 54 |
| Master Ciberseguridad | 15 |
| **Total general** | **292** |

Se mantiene la idea de desarrollar un conocimiento mutuo entre los agentes de la industria del conocimiento del entorno de ORONA. Y en la idea de ubicar nuevas disciplinas caminando hacia la "facultad de facultades".



## 06.4 INGURUKOA (Orona Fundazioa Gizarterantz)
## ENTORNO (Orona Fundazioa Gizarterantz)

Ingurua garatzeko lan-ildoa dago zuzenkien errotuta tokiko gizartean, haren garapena sustatzea baitu helburu, hainbat ikuspegitatik.

. Orona Fundazioak bere inguruan aberastasuna sortzen lagundu nahi du.

. Kultura eta gizartea garatzen lagundu nahi du Orona Fundazioak.

. Ikasleei unibertsitate aurreko orientabide akademiko eta profesionalarekin lagundu nahi die Orona Fundazioak.

Bidasoa, Oiartzualdea eta Donostia-Beterri eskualdeetako 150 eragilerekin, gutxi gorabehera, harremanetan jarraitzen du Orona Fundazioak; tartean, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta unibertsitate-mailako 50 ikastetxe daude, gutxi gorabehera.

La línea de trabajo de Desarrollo del Entorno es la que arraiga de forma más directa con la sociedad a nivel local, tratando de impulsar su desarrollo en varias dimensiones complementarias.

. La Fundación Orona quiere contribuir a la creación de riqueza en su entorno.

. La Fundación Orona quiere apoyar el desarrollo de la cultura y de la sociedad.

. La Fundación Orona quiere apoyar a los estudiantes en su orientación académica y profesional antes del período universitario.

Orona Fundazioa mantiene el contacto con aproximadamente 150 agentes de las comarcas de Bidaosaldea, Oarsoaldea y Donostialdea, siendo 50 aproximadamente de ellos centros educativos de bachiller, formación profesional o universidades.

# 07 KUDEAKETAKO BESTE ALOR BATZUK
## OTROS AMBITOS DE GESTIÓN








### 07.1 EKITALDIEN KUDEAKETA
### GESTIÓN DE EVENTOS

Orona Ideo bere inguru hurbileko eragileen topagunea da. Hirugarren batzuen ekitaldiak ere egiten dira. Aurten, hauek egin dira:

- 121 bilera edo ekitaldi.
- 11.692 bisitari.
- Orona Fundazioaren xedeei lotutako ekitaldiei merkataritza-jarduera bat gehitzen zaie (MICE), eta, hala, inguruko eragileen, enpresen eta erakundeen eskaria asetzen da.

Orona Ideo es un punto de encuentro de los agentes del entorno más próximo. Además se celebran eventos de terceros, este año en concreto, se han celebrado:

- 121 reuniones o eventos.
- 11.692 visitantes.
- A los eventos relacionados con los fines fundacionales, Orona Fundazioa, se suma la actividad mercantil (MICE), respondiendo así a la demanda de agentes, empresas e instituciones del entorno.






## 07.2 TABERNA
## CANTINA

Diametro 200 Slow Kafetegia ireki zen, ORONAk haren emakida Gure Elikagai SL enpresari esleituta. Eredua 2015eko urrian ezarri zen, Lastaolako instalazioetan. Otordu- eta kafetegi-zerbitzu hauek eman dira:

. ORONAko langileei:

- Langileentzako self-service-a: 102.999 otordu

. Beste zerbitzu batzuk:

- Otorduak eta plater konbinatuak, kanpoko ekitaldiak (kafeak eta aperitiboak) eta trebakuntzako eta ORONAk antolatutako beste ekitaldi batzuetako langileak.

Gure Elikagaik otordu horiek guztiak emateko erositako lehengaiei dagokienez, hona hemen banaketa:

. Produktu ekologikoak: totalaren % 3.

. Sasoiko eta tokiko elikagaiak: totalaren % 50,7.

. Tokiko elikagai ekologikoak: totalaren % 20,8.

Tras la apertura de la Slow Kafetegia Diámetro 200 mediante la concesión por parte de ORONA a la empresa Gure Elikagai SL. El modelo se implementó en octubre de 2015 en las instalaciones de Lastaola. Y se han suministrado los siguientes servicios de comida y cafetería:

. a personal de ORONA:

- Self-Service a trabajadores: 102.999 comidas

. Otros servicios:

- Comidas y platos combinados, eventos externos (coffees y aperitivos) y personal en formación y otros eventos organizados por ORONA.

Para el suministro de estas comidas, respecto del volumen total de compras de materias primas, por parte de Gure Elikagai se ha concretado en:

. Productos ecológicos: 3 % del total.

. Género de producción local de temporada: 50,7 % del total.

. Género de producción local y ecológico: 20,8 % del total.

## 07.3 HARREMAN INSTITUZIONALAK ETA PUBLIKOAK
## RELACIONES INSTITUCIONALES y RR.PP.

Zuzendaritza Nagusiari laguntzeko, Fundazioaren izaeraren beraren ondorioz, erakunde-eragileekin harremanetan egon gara egunerokoan, Zuzendaritzak koordinatuta.

Gero eta ohikoagoa da, orobat, negozio-alorrarekin erlazionatutako bisitei laguntza ematea, haiek positiboki baloratzen baitute gizarte-ekintza.

En apoyo a la Dirección General y como consecuencia de la propia naturaleza de una fundación, en el día a día se han mantenido una serie de contactos con agentes institucionales, bajo la coordinación de la susodicha Dirección.

Es cada vez más habitual, también, el apoyo a visitas relacionadas con el ámbito del negocio, dado que las mismas valoran positivamente la acción social.



# 08 MARTXAN DAUDEN PROIEKTUEN HELBURUAK
## OBJETIVO DE LOS PROYECTOS EN CURSO

Hainbat proiektu ditugu martxan, eta gehienak bat datoz Orona Fundazioa Gizarterantz proiektuaren lan-ildoarekin.

Gizarte konplexu batean, ordea, gizarte-berrikuntzako jardueretan, ezinbestekoa ez ezik aberasgarria ere bada proiektuen zeharkakotasuna, eta Unibertsitate Garapenean eta Garapen Instituzionalean eragina izan dezake. Zenbait proiektutan, halaber, barruko misioan edo Barne Garapenean izaten da eragina. Izan ere, proiektuek bai barruan eta bai kanpoan eragina izatea da ideala.

Jarduera horietako zenbait BERTAKO EKITALDI bihurtu dira. Hona hemen laburpen-grafikoa:

Son varios los proyectos en curso, la mayoría de ellos coherentes con la línea de trabajo *Orona Fundazioa Gizarterantz*.

No obstante en una sociedad compleja y desde actividades de innovación social, la transversalidad de los proyectos, además de inevitable es enriquecedora y capaz de incidir en el Desarrollo Universitario y en el Desarrollo Institucional. Asimismo en varios de los proyectos se impacta en la misión intramuros o Desarrollo Interno. De hecho el ideal a alcanzar es que los proyectos impacten tanto interna como externamente.

Algunas de las actividades se han traducido en EVENTOS PROPIOS, que se expresan en los siguientes cuadros:

| DATA<br>FECHA | JARDUERA<br>EVENTO | ERAKUNDEA<br>ENTIDAD | MOTA<br>TIPO ACTIVIDAD |
|---|---|---|---|
| 2017/01/2-3-4-5<br>2-3-4-5/01/2017 | NEGULAB | KODE ESKOLA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/01/10<br>10/01/2017 | ORONA EZAGUTZEN | HERNANIKO BHI | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/01/12<br>12/01/2017 | JARDUNALDIA/BILERA<br>JORNADA/REUNIÓN | APOYO DRAVET | GIZARTEA<br>SOCIAL |
| 2017/01/20<br>20/01/2017 | LANDA GARAPENERAKO ELKARTEAREN BILERA | BEHEMENDI | EKONOMIA-KULTURA<br>ECON-CULTURAL |
| 2017/01/25<br>25/01/2017 | ORONA EZAGUTZEN | ZUBIRI MANTEO | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/01/31<br>31/01/2017 | ZINETEK | ZINEMALDIA | KULTURA<br>CULTURAL |
| 2017/02/04<br>04/02/2017 | JARDUNALDI IREKIA<br>JORNADA PUERTAS ABIERTAS | KIROL EGOKITUEN GIPUZKOAKO FEDERAZIOA<br>FEDERACION GUIPUZCOANA DEPORTE ADAPTADO | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/02/11<br>11/02/2017 | PRESTAKUNTZA-IKASTAROA<br>CURSO DE FORMACIÓN | LEINN M.U.-KO IKASLEAK<br>ALUMNOS LEINN M.U. | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/02/17<br>17/02/2017 | EUSKAL MENDIZALETASUNAREN XXI. GALA<br>XXI GALA DEL MONTAÑISMO VASCO | CLUB VASCO CAMPING | KULTURA<br>CULTURAL |
| 2017/02/23<br>23/02/2017 | JARDUNALDIAK<br>JORNADAS | M.U. | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/02/24<br>24/02/2017 | ORONA EZAGUTZEN | BEASAINGO INSTITUTUA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/02/28<br>28/02/2017 | ZINETEK | ZINEMALDIA | KULTURA<br>CULTURAL |
| 2017/03/03<br>03/03/2017 | AHOLKULARITZAKOEK HOBEKUNTZA-SAIO BAT | ELHUYAR | KULTURA<br>CULTURAL |
| 2017/03/09<br>09/03/2017 | PBL DAY | M.U. + ORONA FUNDAZIOA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/03/11<br>11/03/2017 | JARDUNALDI IREKIA<br>JORNADA PUERTAS ABIERTAS | M.U. | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/03/14<br>14/03/2017 | ORONA EZAGUTZEN | HERNANI BHI INSTITUTUA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/03/17<br>17/03/2017 | ORONA EZAGUTZEN | UNIVERSIDAD DE NAVARRA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |

| DATA<br>FECHA | JARDUERA<br>EVENTO | ERAKUNDEA<br>ENTIDAD | MOTA<br>TIPO ACTIVIDAD |
|---|---|---|---|
| 2017/03/22<br>22/03/2017 | ORONA EZAGUTZEN | LEGAZPI 6 EUSKALTEGIA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/02/28<br>28/02/2017 | ORONA EZAGUTZEN | LA ANUNCIATA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/03/31<br>31/03/2017 | BILERA ETA IDEORA BISITA<br>REUNIÓN Y VISITA IDEO | MATIA FUNDAZIOA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/04/10-11-12<br>10-11-12/04/2017 | IDEOLAB | KODE ESKOLA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/04/24<br>24/04/2017 | ORONA EZAGUTZEN + CLASE | DEUSTO BUSINESS | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/04/26<br>26/04/2017 | ORONA EZAGUTZEN | IKASTOLA URRETXINDORA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/04/28<br>28/04/2017 | ORONA EZAGUTZEN | COOMEVA | EKONOMIA-KULTURA<br>ECON-CULTURAL |
| 2017/04/29<br>29/04/2017 | JARDUNALDI IREKIA<br>JORNADA PUERTAS ABIERTAS | M.U. | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/05/05<br>05/05/2017 | 24. JARDUNALDI PEDAGOGIKOAK | IKASTOLEN FEDERAZIOA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/05/06<br>06/05/2017 | AXULARKIDE | AXULAR LIZEOA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/05/10<br>10/05/2017 | MENDITOUR | BILBAO MENDI FILM FESTIVAL | KULTURA<br>CULTURAL |
| 2017/05/11<br>11/05/2017 | EKI 4 URTE: EKITALDI SOZIALA | IKASTOLEN FEDERAZIOA | GIZARTEA<br>SOCIAL |
| 2017/05/16<br>16/05/2017 | ORONA EZAGUTZEN | USURBIL LH ZENTROA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/05/16<br>16/05/2017 | ORONA EZAGUTZEN | DEUSTO BUSINESS | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/05/17<br>17/05/2017 | ENPRESEN ELKARLANEKO IV. MINTEGIA<br>IV SEMINARIO INTERCOOPERACION ENTRE EMPRESAS | EUSKO IKASKUNTZA | KULTURA<br>CULTURAL |
| 2017/05/24-25-26<br>24-25-26/05/2017 | WORKSHOP | M.U. | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/05/27<br>27/05/2017 | BIZIPOZA JARDUNALDIA | BIZIPOZA | GIZARTEA<br>SOCIAL |
| 2017/05/29<br>29/05/2017 | AMETSEN EKAITZA | M.U. - LEINN | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/05/30<br>30/05/2017 | HITZALDIA<br>CONFERENCIA | JAUZARREA | KULTURA<br>CULTURAL |
| 2017/06/07<br>07/06/2017 | KOMUNIKAZIOA POSIBLE DA HEMEN<br>AQUÍ ES POSIBLE COMUNICACIÓN | IKERTZE | GIZARTEA<br>SOCIAL |
| 2017/06/14<br>14/06/2017 | ORONA EZAGUTZEN | MARY WARD IKASTETXEA<br>COLEGIO MARY WARD | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/06/15<br>15/06/2017 | PRESTAKUNTZA-HITZALDIA<br>CHARLA FORMATIVA | HERNANI ESKU BALOI TALDEA | KULTURA<br>CULTURAL |
| 2017/07/01<br>01/07/2017 | AXULAR LIZEOKO 27. PROMOZIOAREN AGURRA<br>DESPEDIDA 27 PROMOCIÓN AXULAR LIZEOA | AXULAR LIZEOA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/07/03<br>03/07/2017 | EIJO | EUSKADIKO IKASLEEN JAZZ ORKESTRA | KULTURA<br>CULTURAL |

| DATA<br>FECHA | JARDUERA<br>EVENTO | ERAKUNDEA<br>ENTIDAD | MOTA<br>TIPO ACTIVIDAD |
|---|---|---|---|
| 2017/07/3-4-5-6-7, 10-11-12-13-14<br>3-4-5-6-7, 10-11-12-13-14/07/2017 | UDALAB | KODE ESKOLA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/09/09<br>09/09/2017 | I CAMPUS XISTERA | XISTERA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/09/12, 19<br>12, 19/09/2017 | HAURRA ULERTZEKO MODUA / HELDUAREN PAPERA | IKASTOLEN FEDERAZIOA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/09/25<br>25/09/2017 | TEKNOPOLIS | ELHUYAR | KULTURA<br>CULTURAL |
| 2017/09/28<br>28/09/2017 | MATIAZALEAK | MATIA FUNDAZIOA | GIZARTEA<br>SOCIAL |
| 2017/09/29<br>29/09/2017 | NY ZINEGOTZIEN BISITA | MONDRAGON INTERNACIONAL | KULTURA/ENPRESA<br>CULTURAL/EMPRESARIAL |
| 2017/10/05<br>05/10/2017 | ZINETEK | ZINEMALDIA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/10/06<br>06/10/2017 | KEGF-KO LANGILEEN BARNE-TREBAKUNTZA<br>FORMACIÓN INTERNA PERSONAL FGDA | KIROL EGOKITUEN GIPUZKOAKO FEDERAZIOA<br>FEDERACIÓN GUIPUZCOANA DEPORTE ADAPTADO | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/10/09<br>09/10/2017 | IKASTOLEN EGUNA<br>JORNADA IKASTOLAS | AXULAR LIZEOA | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/10/19<br>19/10/2017 | COMPOSTA EN RED SAREA<br>COMPOSTA EN RED | HERNANIKO UDALA | GIZARTEA<br>SOCIAL |
| 2017/10/31<br>31/10/2017 | ZINETEK | ZINEMALDIA | KULTURA<br>CULTURAL |
| 2017/11/02<br>02/11/2017 | GET UP SARIAK | ORONA EIC | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/11/15<br>15/11/2017 | ORONA EZAGUTZEN | ERAGIN | KULTURA<br>CULTURAL |
| 2017/11/21-22<br>21-22/11/2017 | TREBAKUNTZA<br>FORMACIÓN | GURE ELIKAGAI | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/11/22<br>22/11/2017 | FICAB | OIASSO MUSEOA | KULTURA<br>CULTURAL |
| 2017/11/23<br>23/11/2017 | ORONA EZAGUTZEN | ANTIGUA LUBERRI | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/11/24<br>24/11/2017 | ORONA EZAGUTZEN | PIO BAROJA IRUN INSTITUTO | HEZKUNTZA<br>EDUCATIVA |
| 2017/11/23-24-25<br>23-24-25/11/2017 | SAGARDOFORUM | SAGARDOAREN LURRALDEA | KULTURA<br>CULTURAL |
| 2017/11/28<br>28/11/2017 | ZINETEK | ZINEMALDIA | KULTURA<br>CULTURAL |
| 2017/12/01<br>01/12/2017 | EUSKARA EGUNA GYNKANA | HERNANIKO UDALA | KULTURA<br>CULTURAL |
| 2017/12/12<br>12/12/2017 | ZINETEK | ZINEMALDIA | KULTURA<br>CULTURAL |
| 2017/12/15<br>15/12/2017 | BEGIRADAK ERAKUSKETA<br>EXPOSICIÓN MIRADAS | ETIOPIA UTOPIA | KULTURA<br>CULTURAL |

Orona Fundazioa Gizarterantz programaren bidez, eta Bidasoa, Oiartzualdea eta Donostia-Beterri eskualdeetako eragileekin proiektuak eginez, aberastasuna sortu da, gizartea eta kultura garatu dira, eta unibertsitate-aurreko mundu akademikoarekiko lankidetza hasi da. Beraz, Fundazioak inguruan duen eta kide den gizartearen garapena du xede.

Mediante el programa *Orona Fundazioa Gizarterantz*, y mediante la realización de proyectos con agentes de Bidasoaldea, Oarsoaldea y Beterri-Donostialdea, se está generando un impacto en términos de generación de riqueza, de desarrollo sociocultural y colaboración con el mundo académico pre-universitario. La Fundación busca el desarrollo, por tanto, de la sociedad que le rodea, sociedad a la que pertenece.

## 08.1 ABERASTASUNA SORTZEA
## GENERACIÓN DE RIQUEZA

Orona Fundazioaren helburuetako bat da lankidetzan aritzea eta baldintzak ezartzea hurbileneko gizarteak aukera handiagoa izan dezan sozialki eta ekonomikoki garatzeko.

Uno de los objetivos de Orona Fundazioa es el colaborar estableciendo las condiciones para que la sociedad más cercana tenga más posibilidad de desarrollarse en términos socio-económicos.

## 08.2 GARAPEN SOZIOKULTURALA
## DESARROLLO SOCIOCULTURAL

Arlo honetan, gure inguruko garapen sozial eta kulturalera bideratutako zenbait ekintza ditugu. Lankidetza horiek zenbait modutara egiten dira.

En este ámbito encontramos diversas actuaciones enfocadas al desarrollo social y cultural de nuestro entorno. Estas colaboraciones tienen diversas expresiones.

## 08.3 GARAPEN AKADEMIKOA
## DESARROLLO ACADÉMICO

Orona Fundazioak, inguruko hezkuntza-komunitatearekin lankidetzan, gure gazteak unibertsitate aurreko etapetan treba daitezen lagundu nahi du jarduera osagarriekin. Horretarako, espiritu kritikoa eta ikuspegi berriak, lan- eta enpresa-mundura hurbiltzea, gaitasun berriak garatzeko aukera eta teknologiara modu ludikoan hurbiltzea sustatzen dituzten jarduerak egin nahi ditu.

Orona Fundazioa, en colaboración con la comunidad educativa del entorno quiere ayudar con actividades complementarias en la formación de nuestros jóvenes en etapas pre-universitarias, mediante actividades que desarrollen el espíritu crítico y nuevas perspectivas, el acercamiento al mundo laboral y empresarial, la posibilidad de desarrollar nuevas habilidades o el acercamiento a la tecnología de un modo lúdico.

# 09 EKARPEN-EREDUA
## EL MODELO DE CONTRIBUCIÓN

Ekarpen-eredua proaktiboa da. Gizarte-eragileekin batera jarduerak egiten dira, eta baliabideak jartzen dira horretarako: azpiegitura, giza kapitala, harremanetarako ahalmena eta baliabide finantzarioak.

El modelo de contribución es proactivo. Se desarrollan actividades en conjunto con agentes sociales, y se aportan recursos tales como, cesión de infraestructura, capital humano, capacidad relacional y recursos financieros.



# 10 PROIEKTUAK PROYECTOS

## 10.1 DIAMETRO 200 DIÁMETRO 200

### 10.1.1 PROIEKTUAREN SORRERA

Orona Fundazioak ORONA osatzen duten pertsonen garapena bultzatzen du, bere lan-ildoari eutsiz.

Orona Fundazioa, beste sail korporatibo batzuekin batera, azken urteotan lanean aritu da ORONA enpresa osasuntsu bilakatzeko. Fundazioarentzat, enpresa osasuntsuaren kontzeptuak hiru ardatz ditu: elikadura osasuntsu bat sustatzea, ariketa fisikoa egitea, eta bizitza sozialaz gozatzeko denbora izatea.

Orona Fundazioak arrakastaz landu ditu hiru ardatz horiek, eta, hala, Diametro 200 proiektua sortu du. Oronako pertsonen elikadura osasuntsua sustatzea da proiektu horren xede nagusia, eta, halaber, jarduera fisikoa sustatzea.

### 10.1.1 NACIMIENTO DEL PROYECTO

Orona Fundazioa, de manera fiel a su línea de trabajo intramuros, es impulsora del desarrollo de las personas que forman ORONA.

A lo largo de estos años, Orona Fundazioa ha trabajado, junto con otros departamentos corporativos, por el objetivo de hacer de ORONA una empresa saludable. La Fundación entiende el concepto de empresa saludable bajo un triángulo cuyos tres ejes se centran en la promoción de una alimentación saludable, el ejercicio de actividad física y el tiempo de disfrute de vida social.

Orona Fundazioa ha trabajado con éxito en torno a estos ejes, dando así paso al Proyecto Diámetro 200. Este proyecto está principalmente centrado en promover la alimentación saludable de sus personas, así como subsidiariamente en el ejercicio de actividad física.

Ø200

Diametro 200 proiektuaren logotipoa
Logotipo del Proyecto Diámetro 200

Aisialdiaz edo bizitza sozialaz gozatzeko denborari buruzko ardatza ere landu du Fundazioak zenbait jardueraren bidez, baina, zeharkakoak direnez, ez dira sartzen Diametro 200 proiektuan (Fundazioaren beste proiektu batzuetan sartzen dira). Beste proiektu horien helburua nahiz ez den ORONAko langileen garapena, haien bizitza soziala indartzen laguntzen dute. Laburbilduz, Diametro 200 proiektuan nahiz Fundazioaren beste proiektu batzuetan sartu, Orona Fundazioaren jardueren % 21ek zuzeneko eragina dute ORONA osatzen duten pertsonen garapenean.

El impulso del eje relativo al enriquecimiento del tiempo de ocio o vida social de los trabajadores ha sido igualmente trabajado por la Fundación mediante diversas actividades que por su carácter transversal no se enmarcan en el Proyecto Diámetro 200, sino que son incluidas en otros proyectos de la Fundación. En otros proyectos que aunque su objetivo final no es el desarrollo de los trabajadores de ORONA, contribuyen al fortalecimiento de su vida social. En definitiva, ya sea incluidas en proyecto Diámetro 200 o en otros proyectos de la Fundación el resultado es que un 21% de las actividades de Orona Fundazioa impactan directamente en el desarrollo de las personas que conforman ORONA.

## 10.1.2 PROIEKTUAREN XEDEA ETA IKUSPEGIA

Diametro 200 proiektuaren xedea da ORONAko langileak modu osasuntsuan elikatzea, eta, halaber, ariketa fisikoa egin dezaten sustatzea.

Orona Ideoko eta Lastaolako ekoizpen-instalazioetako langileak modu osasungarrian elikatzeko, elikagai ekologikoak eta/edo tokikoak eta garaian garaikoak erabiltzen dira, eta horrek bereizten du, hain zuzen, Diametro 200 proiektua. Gainera, inguruko landa-ingurunearen garapenari balioa ematen dion elementu traktorea da ardatz hori, inguruko nekazari txikien jarduerari laguntzen baitie.

Proiektuaren ikuspegia da, alde batetik, ORONAko langileei elikadura-zerbitzu on, garbi eta justu bat eskaintzea, eta, bestetik, kirola edo jarduera fisikoa Oronako pertsonen eguneroko bizitzako elementu izatea.

Elikadura-zerbitzu onarekin esan nahi da eskaintzaren kalitatea zapore onekoa, kalitatezkoa eta tokikoa izatea. Tokikoarekin esan nahi da elikagai guztiak 200 kilometroko diametroko zirkulu geografiko batean lortzen direla.

## 10.1.2 MISIÓN Y VISIÓN DEL PROYECTO

La misión del Proyecto Diámetro 200 es alimentar de manera sana y saludable a los empleados de ORONA, así como promover entre los mismos el ejercicio de actividad física.

El elemento diferencial del Proyecto Diámetro 200 radica en que para alimentar de forma sana y saludable a los trabajadores de Orona Ideo y de la planta de producción de Lastaola, se utilizan primordialmente alimentos ecológicos y/o locales y de temporada. Lo que juega además como un elemento tractor generador de valor en el desarrollo del mundo rural de la zona, en tanto que apoya la actividad de los pequeños productores agroalimentarios locales.

La visión de este proyecto es, por una parte, ofrecer a los trabajadores de ORONA un servicio de alimentación bueno, limpio y justo, así como hacer del deporte o actividad física un elemento más en la vida cotidiana de las personas de Orona.

Un servicio de alimentación bueno en cuanto a que la calidad de la oferta sea organolépticamente buena, de primera calidad y local. Entendiendo por local todos los alimentos obtenidos en un círculo geográfico de un Diámetro de 200 kilómetros.





Garbiarekin esan nahi da elikagaiak artisau-eran eta modu tradizionalean landu direla, lurra, itsasoa eta airea errespetatuz, kutsatu gabe eta animalia eta landare transgenikorik erabili gabe.

Eta, azkenik, justuarekin esan nahi da nekazariek, abeltzainek eta arrantzaleek prezio justua kobratzen dutela beren lanaren truke.

Por limpio se refiere a que el alimento esté trabajado de una manera artesanal, tradicional y respetando la tierra, el mar y aire, de manera no contaminante y no utilizando ni animales ni plantas transgénicas.

Y justo en cuanto a un comercio en el que los agricultores, ganaderos y pescadores cobren un precio justo por su trabajo.

## 10.2 KULTURA MUSIKALA
## CULTURA MUSICAL

### 10.2.1 PROIEKTUAREN SORRERA

Musikak sustrai sakonak ditu Euskal Herrian, eta, gainera, hemen inguruko erakunde askoren ardatza da.

### 10.2.1 NACIMIENTO DEL PROYECTO

La música es un componente cultural muy arraigado en Euskal Herria, tanto es así que la música se presenta como un elemento sobre el cual pilotan un número importante de entidades del entorno.






Euskal Herriko kulturako musika-tresna batzuk egungo musikan ere erabiltzen dira, hala nola txistua, trikitixa eta txalaparta. Musika-koralak tradizio handia du herrialdean, eta koru asko daude.

Ekitaldi musikal nabarmenak ere badira, besteak beste, Donostiako eta Gasteizko jazzaldiak, Donostiako Musika Hamabostaldia eta Bilbao BBK Live. Eta orobat abeslari ezagunak ere, hala nola Mikel Laboa, nahiz hasten ari diren musikariak. Era berean, aipatzekoa da Musikene, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia (Donostia), zeinean goi-mailako musika-ikasketak ematen baitira.

Laburbilduz, modu batera ala bestera, gure inguruneko eragile askok lotura dute musikarekin musika-elkarteen bidez; adibidez, eskolen, kontserbatorioen, taldeen, banden eta orkestren bidez.

Orona Fundazioak, bere inguruko gizarte-errealitatearen berri duenez, eta ingurunea garatzeko lan-ildoarekiko konpromisoa betez, Kultura Musikala proiektua sortu du.

Lau urte hauetan, tokiko zenbait eragile musikalekin batera aritu da Fundazioa eta lagundu egin die, ingurunearen garapena sustatzeko eta bultzatzeko.

## 10.2.2
## PROIEKTUAREN XEDEA ETA IKUSPEGIA

Ingurunea garatzea da Fundazioaren xedea, eta musika elementu kulturala denez eta gure ingurunea musikan aberatsa denez, oso egokia da garapen hori musikaren bidez gauzatzea. Orona Fundazioak, Kultura Musikala proiektuaren bidez, inguruneko musika-erakundeen parte izan nahi du,

Así, existen instrumentos musicales propios de la cultura autóctona vasca integrados en la música actual como el txistu, la trikitixa o la txalaparta. La música coral, muy arraigada en el país, cuenta con un gran número de agrupaciones corales.

Destacan eventos musicales tales como el Festival de Jazz de San Sebastián y de Vitoria, la Quincena Musical de San Sebastián o el Bilbao BBK Live. Conocidos músicos y cantantes desde Mikel Laboa a los nuevos valores emergentes. Asimismo, cabe señalar el Centro Superior de Música del País Vasco, Musikene, donde se imparte el Grado Superior de las Enseñanzas de Música en San Sebastián.

Todo ello se traduce en que, de un modo u otro, un gran número de agentes del entorno se encuentran vinculados a la música, por medio de diferentes agrupaciones musicales como escuelas, conservatorios, grupos, bandas u orquestas.

Orona Fundazioa siendo conocedora de la realidad social que le acompaña y en cumplimiento de su compromiso con la línea de trabajo de desarrollo del entorno da paso al proyecto denominado Cultura Musical.

A lo largo de estos cuatro años la Fundación ha apoyado y colaborado con diferentes agentes musicales locales con la idea de promover y generar impacto en el desarrollo del entorno.

## 10.2.2
## MISIÓN Y VISIÓN DEL PROYECTO

La Fundación tiene como misión el desarrollo del entorno, hacerlo por medio de la música como elemento cultural se antoja de lo más pertinente dada la gran riqueza musical existente en nuestro tejido. Orona Fundazioa por medio de



Euskal Herriko gizarteak interes eta lotura handiak baititu musikarekiko eta horrek aukera ematen baitio fundazioari tokiko kolektiboetatik gertuago egoteko.

Musikaren irismenak bereizten du proiektu hau. Fundazioak musikaren bidez bultzatzen du kultura, eta, musika-erakunde batzuekin lankidetzan arituta, eragina du gizarte lokalenean. Inguruneko eragile musikalak gure gizartearen kohesioaren traktore dira.

Musikaren bidez gauzatzen den kultura horrek nor garen erakusten du. Gure kultura eta gure ohiturak transmititzen ditu musikak. Beste kultura-adierazpen asko bezala, musika ere sentimenduak adierazteko eta sentsazio eta pentsamenduak irudikatzeko modu bat da gizakiontzat. Eta ideia horiek ondo baino hobeto uztartzen dira Fundazioak ondare ez-materiala balioan jartzeko duen konpromisoarekin, geroago ikusiko den moduan.

Kultura musikaren bidez bultzatzeaz gainera, Orona Fundazioa Gipuzkoan musikaren bultzatzaile nagusitzat hartzea da proiektu honen ikuspegia. ORONAren helburua da inguruan dituen eragileen arteko harremanak bultzatu eta sinergiak sortzea, haien bidez jarduera berri eta sozialki berritzaileak, gizarte-bazterketako arriskua duten kolektiboetan, osasun-arazoekiko kolektiboetan edo bestelakoetan eragina sortuko dituztenak, eratzeko. Izan ere, musika gizarteratze-indar handiko elementu bat da, pertsonen artean kohesio eta batasun sendoa sortzen duena.

-

Su proyecto Cultura Musical quiere ser parte activa entre las entidades musicales del entorno debido al gran interés y vinculación que la sociedad local siente en relación a la música, lo que aporta a la Fundación la capacidad de acercarse a los diferentes colectivos locales.

El elemento diferencial de este proyecto es el alcance que la música proyecta. La Fundación con la idea de promover la cultura a través de la música y por medio de su colaboración con unas pocas entidades musicales consigue impactar sobre el conjunto de la sociedad más local. Los agentes musicales del entorno son tractores de la cohesión de nuestra sociedad.

La cultura expresada a través de la música expone quienes somos. La música transmite nuestra cultura y las tradiciones que nos rodean. Tal como sucede con muchas otras formas de expresión cultural, la música es una manera que tiene el ser humano para expresarse y representar sus sensaciones y pensamientos. Estas ideas combinan a la perfección con el compromiso de la Fundación de poner en valor el patrimonio no material, como se verá más adelante.

La visión de este proyecto es, además de fomentar la cultura por medio de la música, conseguir que Orona Fundazioa se tenga como un referente impulsor de la música en Gipuzkoa. ORONA tiene como objetivo fomentar las relaciones entre los diferentes agentes que le rodean con el fin de crear sinergias que den paso a nuevas actividades socialmente innovadoras que generen impacto por ejemplo en colectivos en riesgo de exclusión social o colectivos con problemas de salud. Ello se debe a que la música es un elemento generador de gran inclusión social, que genera gran cohesión y unión entre las personas.

# 10.3 ONDARE EZ-MATERIALA PATRIMONIO NO MATERIAL

## 10.3.1 PROIEKTUAREN SORRERA

Euskal Herria, ORONA sortu zen espazioa. Euskal Herriak nortasun handia izan arren, bertako kultura-ondarea zabaldu eta babesteko beharra ikusten da. Kultura-ondarea ez da mugatzen monumentu, bilduma eta objektuetara; bizirik dirauten adierazpenak eta tradizioak ere kultura-ondare dira, komunitate bat berezi bilakatzen baitute. Halakoak dira, adibidez, dantza, hizkuntza, gastronomia, literatura, etab.

Orona Fundazioaren iritziz, etorkizunera begiratzeko modu bakarra iragana ezagutu eta babestea da, eta ideia horretatik etorri da euskal kulturaren balioa nabarmentzeko eta Ondare Ez Materialaren Proiektua sortzeko konpromisoa.

Orona Fundazioak, bere jatorrizko lurraldeko ondare ez-materialari balioa emateko helburuarekin eta ingurunea garatzeko lan-ildoarekin bat etorriz, Ondare Ez Materialaren Proiektua sortu du.

## 10.3.1 NACIMIENTO DEL PROYECTO

Euskal Herria, es el espacio en que nace ORONA. Sin embargo, aun cuando su identidad es muy evidente, se observa la necesidad de divulgar y proteger la gran riqueza de su patrimonio cultural. El patrimonio cultural no se limita a los monumentos, colecciones y objetos, sino que comprende las tradiciones y expresiones vivas heredadas que hacen única a una comunidad como la danza, el idioma, la gastronomía, la literatura, etc.

Orona Fundazioa entiende que la única forma de mirar al futuro es conociendo y preservando el pasado, lo da paso al compromiso de la Fundación de poner en valor la cultura vasca y al nacimiento del Proyecto Patrimonio no Material.

Orona Fundazioa con el objetivo de valorizar el patrimonio inmaterial de su territorio originario y en contribución a su línea de trabajo de desarrollo del entorno da paso al Proyecto Patrimonio no Material.

ONDARE EZ-MATERIALAREN PROIEKTUAREN ILDOAK
LÍ NEAS DEL PROYECTO PATRIMONIO NO MATERIAL



Euskal Herriko kirol tradizional eta tipikoetako bat dugu **euskal pilota**. Frontoietan jokatzen da euskal pilotan, eta badira zenbait modalitate tradizional, hala nola esku-pilota, zesta-punta, erremontea, pala eta trinketa.

Mendizaletasuna ere Euskal Herriko kirol tradizional bat da, eta mendizale ugari dago Euskal Herriko lurralde guztietan. Erraz ulertzen da euskaldunek halako mendizaletasuna izatea, Euskal Herriko paisaia mendiz inguratuta baitago alde guztietatik. Eta kirola alde batera utzita ere, **mendian** bertan, euskal kulturaren bilakaeraren aztarnak ditugu.

Bestalde, **euskara** hizkuntza bakartu bat da, dirudienez ez baitago jatorri bereko beste hizkuntzarik. Euskararen jatorria misterio bat da oraindik, hari buruzko teoria asko dauden arren.

**Itsasoa** funtsezko elementua izan da euskaldunentzat, eta haren inguruan garatu eta bizi izan dira. Baleontziak garrantzitsuak dira, alde batetik, Euskal Herritik Ternura atera ziren lehenengo zama-ontzi transozeanikoak izan zirelako, eta, bestetik, Euskal Herriko itsas industriak garai hartan garrantzi eta eragin handia izan zuela erakusten dutelako. Euskal baleontziek XIV. eta XV. mendeetan izan zuten jarduera handiena: baleak arrantzatzeaz gainera, bakailaoak ere arrantzatu zituzten, eta larruen salerosketan ere aritu ziren. Ez dugu ahaztu behar, halaber, traineruek Euskal Herrian izan duten tradizioa; euskal jatorriko kiroltzat hartzen da, balea arrantzatzeko erabiltzen zirelako.





Entre los deportes tradicionales y típicos vascos nos encontramos la **pelota vasca**. Este deporte se practica en los frontones y cuenta con distintas modalidades tradicionales como la pelota mano (esku pilota), la cesta-punta, el remonte, la pala o el trinquete.

El montañismo representa otra tradición deportiva vasca, mostrando todos los territorios vascos una gran afición por el montañismo. No resulta difícil comprender la gran afición de los vascos hacia este deporte dado el paisaje que acompaña, rodeado de montes por todos los lados. La **montaña**, más allá de la práctica deportiva, en sí misma guarda evidencias de la evolución de la cultura vasca.

Por su parte, el **euskera** es considerado una lengua aislada, ello se debe a que parece no mostrar ningún origen en común con otras lenguas. La raíz del euskera es hoy en día todavía un misterio pese a que existen diversas y múltiples teorías sobre su origen.

El **mar** ha supuesto para los vascos un elemento clave sobre el que se han desarrollado y convivido. Destacan los balleneros por ser los primeros buques de carga transoceánicos que zarparon desde el País Vasco hacia Terranova y que reflejan la enorme importancia e impacto que tuvo la industria marítima vasca en la época. La mayor actividad de los balleneros vascos fue en los siglos XIV y XV, además de ballenas también se dedicaron a comerciar con pieles y, sobre todo, a la pesca del bacalao. Así, no se debe olvidar la tradición vasca del remo de traineras, considerado un deporte tradicional más vasco por su origen ballenero.



Oiartzungo Txost taldea, joko zuzena pilota-modalitatean jokatzen

Txost Taldea de Oiartzun jugando a la modalidad de pelota Joko Zuzena

**Euskal zibilizazioa** ere kultura unibertsalerako ekarpen gisa hartzen da. Teoria eta aztarna asko dago aztertzeko; adibidez, euskaldunek Ipar Amerikan antzina utzitako aztarnak, euskaldunen presentzia San Laurendi ibaiaren estuarioan, Pirinioetako zuzenbidea, etab.

## 10.3.2 PROIEKTUAREN XEDEA ETA IKUSPEGIA

Fundazioak, proiektu honen bidez, inguruko lurraldeko ondare ez-materiala balioan jartzeko xedea du; Euskal Herriko historia eta tradizioak ikusgai jarri nahi ditu, ingurunea garatzen laguntzeko eta zibilizazio unibertsalari ekarpen bat egiteko. Horretarako, Ondare Ez Materialaren Proiektuan, balioa eman nahi die Orona fundazioak ondare hauei: euskal zibilizazioaren jatorria eta historia; mendizaletasun, euskal pilota eta halako beste jarduera batzuk; euskara, hizkuntza bakartu gisa, eta itsasoari, garapenerako eta bizikidetzarako giltzarri gisa.

Ondare Ez Materialaren Proiektuaren ikuspegi orokorraren arabera, aktualitatean agertu behar dute euskal kulturak, historiak eta tradizioek, gure artean bizirik iraun dezaten eta ez ditzagun ahaztu.

**Mendizaletasuna**ri dagokionez, euskal mendizaletasunaren garrantzia azpimarratzea da Fundazioaren xedea; hau da, Euskal Herriko mendietako ondare historikoa eta garrantzia gorde eta erakustea. Fundazioaren ikuspegia, berriz, mendiko jarduera jende gehiagorengana helaraztea da, gazteengana, batez ere.

La **civilización vasca** se presenta como una aportación más a la cultura universal. Hay teorías e indicios en los que indagar, a modo de ejemplo, la huella temprana de los vascos en el noreste de América del Norte, la presencia de los vascos en el estuario del río de San Lorenzo, la existencia del Derecho Pirenaico, etc.

## 10.3.2 MISIÓN Y VISIÓN DEL PROYECTO

La Fundación por medio de este proyecto tiene como misión poner en valor el patrimonio no material del territorio que le rodea, hacer más visible la historia y las tradiciones vascas como forma de contribuir al desarrollo de su entorno y como aportación a la civilización universal. Para ello, dentro del Proyecto Patrimonio no Material Orona Fundazioa se ha puesto como objetivo valorizar el origen y la historia de la civilización vasca, actividades como el montañismo o la pelota vasca, el euskera como lengua aislada y el mar como instrumento clave de desarrollo y convivencia.

La visión general del Proyecto Patrimonio no Material es que la cultura, historias y tradiciones vascas tengan presencia en la actualidad con el objetivo de que se mantengan vivas entre nosotros, perduren y no caigan en el olvido.

Así por ejemplo en relación a la **montaña** la misión de la Fundación es poner en valor el montañismo vasco, esto es, salvar, conservar y mostrar el patrimonio histórico e importancia de la montaña en Euskal Herria. Su visión es hacer más visible la actividad de la montaña, sobre todo entre los más jóvenes.







Norberak euskaraz ikasteko Arian liburuak
Libros Arian de autoaprendizaje de euskera

En relación con el **mar**, Orona Fundazioa quiere valorizar lo que supuso para la sociedad vasca y europea de los siglos pasados el dominio y conocimiento de la tecnología y de la construcción naval. ORONA empatiza con los valores de la sociedad de la época, en tanto que son compartidos, ya que entre los ejes de la estrategia actual de la compañía están la innovación tecnológica y la apertura al mundo por medio de su estrategia de internacionalización.

En cuanto a la **pelota**, la Fundación quiere promover modalidades de pelota arcaicas que se encuentran en peligro de extinción y darles visibilidad. Asimismo, tiene como visión darle a este deporte una función pedagógica, que se creen escuelas en las que se enseñe el deporte, conseguir que sea un deporte escolar más practicado y que sea jugado entre niños.

**Itsasoa**ri dagokionez, Orona Fundazioak balioa eman nahi dio itsasketa-teknologiari eta ontzigintzari buruzko jakintzak joan diren mendeetan Euskal Herriko eta Europako gizartearentzat izan zuen garrantziari. ORONAk garai hartako gizarteko balioekiko enpatia sentitzen du, eta partekatu egiten ditu; izan ere, konpainiaren egungo estrategiaren ardatzak dira, besteak beste, berrikuntza teknologikoa eta nazioartekotze-estrategiaren bitartez mundura zabaltzea.

**Pilotaz** ari garela, galzorian dauden pilota-modalitate arkaikoak bultzatu nahi ditu Fundazioak, jendeak ezagut ditzan. Era berean, hau da Fundazioaren ikuspegia: funtzio pedagogikoa ematea pilotari, pilotan jokatzen ikasteko eskolak sortzea, ikasleen artean eskola-kirol nagusietako bat izatea, eta haurrek pilotan jokatzea.

Xistera campusa
Campus Xistera



ONDARE EZ-MATERIALA: JARDUERAK, KATEGORIAREN ARABERA
PATRIMONIO NO MATERIAL: ACTIVIDADES POR CATEGORÍA




Jarduera-kopurua kategoriaren arabera, Ondare Ez Materialaren Proiektua
Número de actividades por categoría, Proyecto Patrimonio no Material

**Euskara**ri dagokionez, Orona Fundazioak ahalegina egin nahi du euskara hizkuntza moderno eta normalizatu bat izan dadin, euskara ikasten dutenek, teknologia berrien bitartez, beste hizkuntza batzuk ikasteko dauden baldintzak eta mekanismoak izan ditzaten eta, halaber, euskarazko literatura eta gazteenen artean irakurtzeko zaletasuna zabaldu daitezen.

Azkenik, **euskal zibilizazioa**ri dagokionez, gure iraganeko alderdi garrantzitsuei buruzko dibulgaziozko espazioak ireki nahi ditu Fundazioak (adibidez, zuraren kudeaketa, baleontzien historia, Euskal Herriko historiaren eta kulturaren ikerketa eta zabalkundea).

Ondare Ez Materialaren Proiektuak ingurunearen garapenean eragiten du batez ere, eta, puntualki, ORONAko pertsonen garapenean. Adierazi dugunez, askotarikoak dira proiektu horren onuradunak, besteak beste: Partnerak, Fundazioak ikusgaitasuna ematen baitie eta haien arteko harremanak sustatzen baititu; ondorioz, gizartean berritzaileak diren jarduera eta sinergia berriak sortzen dira. Tokiko gizartea oro har, guztion historia eta tradizioak berreskuratzen baititu proiektuak. Gazteak, haien artean ohitura osasuntsuak sortzeko ahalegina egiten baita. Eta ORONAko pertsonak, aisialdiaz gozatzeko aukerak eskaintzeko egiten diren jarduera batzuetan parte hartzen baitute.

Respecto al **euskera**, Orona Fundazioa quiere aportar su esfuerzo para hacer del mismo un idioma moderno y normalizado, y que mediante las nuevas tecnologías, su aprendizaje sea posible en las mismas condiciones y con los mismos mecanismos que otros idiomas, así como apoyar la literatura en euskara y animar el hábito de leer entre los más jóvenes.

Por último, en relación a la **civilización vasca**, la Fundación quiere abrir espacios divulgativos sobre aspectos importantes de nuestro pasado como la gestión de madera, la historia de los balleneros vascos, investigación y difusión de la historia de Euskal Herria y de la cultura vasca.

El impacto del Proyecto patrimonio no material se da principalmente en el desarrollo del entorno y de manera puntual en el desarrollo de las personas de ORONA. Como se ha venido mencionando, los beneficiarios de este Proyecto son muy variados destacando, por ejemplo: Los partners, en tanto que la Fundación les ofrece visibilidad y promueve las relaciones entre ellos generando nuevas sinergias y actividades socialmente innovadoras. La sociedad local en general, ya que este proyecto recupera la historia y tradiciones de todos. Los jóvenes, tratando de crear nuevos hábitos saludables entre los mismos. Y las personas ORONA, en tanto que toman parte en algunas de las diferentes actividades desarrolladas con el fin de ofrecerles alternativas en las que puedan disfrutar su tiempo de ocio.

## 10.4 AKADEMIKOA
## ACADÉMICO

### 10.4.1
### PROIEKTUAREN SORRERA

Teknologia berriak iritsi dira eta eguneroko bizitzan ugaritu egin da haien erabilera. Horrek aldaketa handiak ekarri ditu hezkuntza-paradigma eta -eredu tradizionaletan, eta irakasleen nahiz ikasleen rolak aldatzen ari dira.

Hezkuntza-ereduaren aldaketaren eta ikaskuntzako ikuspegi berrien ondorioz, irakaslearen rol tradizionala bilakaera sakon bat izaten ari da. Hala, irakaslea jada ez da jakintzen igorle huts bat; orain gidaria edo orientatzailea da ikasleentzat.

Mundu guztiko hezkuntza-sistemek aldaketa handiak izango dituzte datozen urteetan. Iraultza teknologikoaren ondorioz, hezkuntza-erakundeak ingurune interaktibo bilakatuko dira.

Orona Fundazioak, hori guztia kontuan izanda, konpromiso bat hartu du, eta Proiektu Akademikoa sortu du. Hezkuntzako berrikuntza sustatu nahi da proiektu horren bidez, eta helburu hori bat dator ORONAk etengabeko berrikuntzarako duen orientazioarekin.

Fundazioak, Proiektu Akademikoaren bidez, eduki akademikoak eman nahi dizkio hezkuntza-sektoreari, hezkuntza-eredu guztiei laguntzeko eta ikasleek gaitasun berriak gara ditzaten, bereziki, teknologiaren alorrean. Fundazioak gazteen hezkuntzan lagundu nahi dio hezkuntza-komunitateari. Adibidez, ikasleei enpresara etorri eta haren errealitatea eta funtzionamendua ezagutzeko aukera emanez, eta, beraz, hezkuntza-eredu estandarraz kanpoko jarduerak eskainiz. Era berean, Orona Fundazioak ikasleei lagundu nahi die beren

### 10.4.1
### NACIMIENTO DEL PROYECTO

La aparición de las nuevas tecnologías y su utilización en la vida diaria está generando grandes cambios en los paradigmas o modelos educativos tradicionales, donde tanto el papel del profesor como el del alumno están cambiando.

El cambio en el modelo educativo y los nuevos enfoques de aprendizaje llevan aparejada una evolución profunda en el rol tradicional del docente, que deja de ser un mero emisor de conocimientos y se convierte en un guía u orientador para los alumnos.

Los sistemas educativos de todo el mundo sufrirán grandes modificaciones en los próximos años. La revolución tecnológica convertirá a las instituciones educativas en entornos interactivos.

Orona Fundazioa, siendo consciente de todo ello, se ha comprometido con la causa dando lugar a su proyecto denominado Académico. Este proyecto pretende fomentar la innovación educativa, lo que encaja por completo con la orientación hacia innovación constante de ORONA.

Por medio del Proyecto Académico la Fundación quiere aportar contenidos académicos al sector educativo, con el fin de favorecer nuevos modelos educativos y desarrollar nuevas competencias entre los estudiantes, destacando sobre todo la tecnología. La Fundación pretende ayudar a la comunidad educativa a formar a los jóvenes. Por ejemplo, ofreciendo la posibilidad de que los estudiantes se acerquen a la empresa,





potentzialari ahalik eta probetxu handiena ateratzen, unibertsitate-garaia baino lehenagoko orientazio akademiko eta profesionalean laguntza emanez.

Proiektu hori erabat egokitzen zaie enpresaren balioei eta Fundazioaren jatorrizko lan-ildoei. Proiektu horrek ingurunearen garapenari eragiten dio batez ere. Proiektu horretako jarduera batzuek, zeharkakoak direnez, ingurunearen garapenari ez ezik, unibertsitate-garapeneko eta ORONAko pertsonen garapenaren ildoei ere eragiten die modu subsidiarioan.

## 10.4.2 PROIEKTUAREN XEDEA ETA IKUSPEGIA

Fundazioak, proiektu honen bitartez, hezkuntza-berrikuntza bultzatu nahi du irakaskuntza-erakundeen artean, ikasleei gaitasun berriak barneratu eta garatzeko aukera emango dieten hezkuntza-eredu eta ikaskuntza-metodologia berriak sustatuta.

Horretarako, Orona Fundazioak, Proiektu Akademikoaren baitan, aldaketarako onuragarriak izango diren edukiak eman nahi dizkie inguruko hezkuntza-eragileei. Era berean, Fundazioaren asmoa da parte hartzen duen jarduera eta ekimen akademikoen kopuru esanguratsu bat teknologiaren ingurukoa izatea.

Proiektuaren ikuspegi orokorraren arabera, aldaketa erreal eta iraunkorrak sortu nahi dira gure inguruneko hezkuntza-ereduan. Azken finean, ikaste-ingurune eraginkor, motibatzaile eta konstruktiboak sortu nahi dira, egungo beharretara egokituak, gizartea ere etengabe ari baita aldatzen eta gero eta lehiakorragoa baita.




conozcan su realidad y funcionamiento, y así procurar actividades desvinculadas del modelo educativo estándar. Asimismo, Orona Fundazioa quiere ayudar a los estudiantes a sacar el mayor partido a su potencial apoyándoles en su orientación académica y profesional de manera previa a su paso a la universidad.

Este proyecto conecta a la perfección con los valores de la empresa y las líneas de trabajo originarias de la Fundación. Este proyecto impacta principalmente en el desarrollo del entorno. Algunas de las actividades enmarcadas en este proyecto, por su transversalidad, en ocasiones además de en favor del desarrollo del entorno, impactan de manera subsidiaria sobre las líneas de desarrollo universitario y de las personas de ORONA.

IdeoLab campusa, Orona Ideon
Campus IdeoLab celebrado en Orona Ideo








Albaolaren argitalpena Twitter sare sozialean
Publicación de Albaola en la red social Twitter

### 10.4.2
### MISIÓN Y VISIÓN DEL PROYECTO

La Fundación por medio de este proyecto tiene como misión favorecer la innovación educativa entre las entidades docentes fomentando la implantación de nuevos modelos educativos o metodologías de aprendizaje que permitan a los estudiantes adquirir y desarrollar nuevas competencias.

Para ello, dentro del proyecto Académico Orona Fundazioa tiene como objetivo ofrecer a los agentes educativos del entorno contenidos que favorezcan el cambio. Asimismo, la Fundación se ha propuesto que un número importante de las actividades o iniciativas de índole académico en las que participe o promueva piloten en torno a la tecnología como materia esencial.

La visión general del proyecto es generar cambios reales y duraderos en el modelo educativo de nuestro entorno. En definitiva se trata de crear entornos de aprendizaje eficientes, motivadores y constructivos que se adapten a las necesidades actuales ante una sociedad en constante cambio y cada vez más competitiva.

## 10.5 KOHESIO SOZIALA
## COHESIÓN SOCIAL

### 10.5.1
### PROIEKTUAREN SORRERA

Talde bateko kideen artean elkarren arteko batasuna bultzatzen duten loturak sortzen direnean, gizarte-kohesioa dagoela esaten da. Gizarte-kohesioa sortzeko, funtsezko baliotzat hartu behar dira inklusio soziala, kapital soziala eta mugikortasun soziala.

Herritar guztiek aukera-berdintasuna izateak irudikatzen du inklusio soziala. Kapital soziala, berriz, pertsonen eta erakundeen artean konfiantza izatea eta gizarte bateko kide izatearen sentimendua izatea da. Azkenik, pertsonek aurrera egiteko duten aukera-berdintasunean ikusten da mugikortasun soziala.

Gizarte-kohesioa bultzatzeko, talde sozialen arteko batasuna eta inklusioa bultzatu behar dira. Gizarte-kohesioa lortzeko, gizartea osatzen duten eragileen baterako parte-hartzea eta lankidetza aktiboa behar dira. Beraz, gizarte kohesionatu bat lortzeko, komunitateak ez ezik, erakunde publiko eta pribatuek ere lan egin behar dute, eta horietako erakunde bat da Orona Fundazioa.

### 10.5.1
### NACIMIENTO DEL PROYECTO

Cuando los miembros de un grupo generan lazos que fomentan la unión de los unos con los otros se habla de que existe cohesión social. Así, la cohesión social se construye teniendo como valores fundamentales: la inclusión social, el capital social y la movilidad social.

La inclusión social se representa por medio de la igualdad de condiciones de todos los ciudadanos. Por su parte, el capital social es la existencia de confianza entre las personas y en las instituciones, y el sentimiento de pertenencia a una sociedad. Por último, la movilidad social se manifiesta en la igualdad de oportunidades de las personas para progresar.

Promover la cohesión social implica necesariamente luchar por una mayor unión e inclusión entre los diferentes grupos sociales. La cohesión social requiere de la participación conjunta y la colaboración activa de los diferentes agentes que conforman la sociedad. Lo que implica que para lograr una sociedad cohesionado no solo debe estar involucrada la comunidad, sino también las organizaciones públicas y privadas, como es el caso de Orona Fundazioa.

Azken Hernani Hitzetan jardueraren kartela

Cartel de la última edición de la actividad Hernani Hitzetan




Fundazioak, bere inguruko tokiko gizartearen kidetza-sentimendua bultzatzeko eta gizarte kohesionatu bat lortzeko, Gizarte Kohesioa proiektua sortu du, gizartea garatzeko lan-ildoarekin bat.

Fundazioa, Gizarte Kohesioa proiektuaren bitartez, bere inguruneko eragile sozialen batasunaren alde ari den alderdi aktiboa eta konprometitua da. Izan ere, gizarteratzeko arazoak dituzten kolektiboei (adibidez, migratzaileak eta adineko pertsonak) zuzendutako jarduerak egiten ditu. Era berean, tokiko gizartearen kidetza-sentimendua areagotzeko konpromisoa du Fundazioak, eta, horretarako, batasuna sortzen duten jarduera eta ekitaldiak bultzatzen ditu. Eta, nola ez, laguntza ematen die inguruneko eragileei, eta haien arteko loturak errazten ditu.

## 10.5.2
## PROIEKTUAREN XEDEA ETA IKUSPEGIA

Gizarte Kohesioa proiektuaren bitartez, Fundazioaren xedea da ingurunea garatzea tokiko gizartearen bultzadaren eta aurrerapenaren bidez. Pertsonen arteko batasunari lagundu nahi dio, eta kolektiboen araberako hausturarik gabeko gizarte bat eratu nahi du. Hormaz barruko ikuspegiari gagozkiola, ORONAko pertsonengan eragin nahi da sentsibilizazio-jardueren bidez.

Hori lortu ahal izateko, Orona Fundazioak lan egiten du gizarte-bazterketako arriskua duten kolektiboak gizarteratzeko, eta tokiko biztanleen kidetza-sentimendua areagotzen eta bere kontaktu-sareko eragileen arteko lotura sendotzen saiatzen da, eta, hala, eragile horiek garatu eta suspertzeko onuragarriak izango diren erlazio berriak sortzen dira; halaber, ekimen sozialki berritzaileak ekarriko dituzten eta Fundazioaren jardueraren zuzeneko eta zeharkako eragina biderkatuko duten sinergia berriak ere sortzen dira.

Gizarte-kohesioa ezinezkoa izango litzateke gizartearen partaidetzarik gabe eta parte hartzeko borondaterik gabe. Horregatik, Fundazioaren asmoa da Orona Ideoko pertsona-talde bat boluntario-lanak egiten hastea.

Así, la Fundación con el objetivo de fomentar el sentido de pertenencia de la sociedad local que le rodea y hacer de la misma una sociedad cohesionada, en sintonía con su línea de trabajo de desarrollo social, da paso al Proyecto denominado Cohesión social.

Por medio del Proyecto Cohesión social la Fundación consigue presentarse como parte activa y comprometida que actúa en favor de la unión de los agentes sociales de su entorno. Y lo hace favoreciendo, por ejemplo, actividades dirigidas a colectivos con problemas de inclusión social como las personas de origen migrante o las personas mayores. Asimismo, la Fundación está comprometida con aumentar el sentimiento de pertenencia de la sociedad local haciendo posible la celebración de actos y acontecimiento generadores de unión. Y por supuesto, prestando su apoyo a los diferentes agentes del entorno y propiciando las conexiones entre ellos.



**Voluntarios y empresas participan en un programa de apoyo a deportistas con discapacidad**

Se trata de ofrecer la posibilidad de «contar con lo básico» a veinte deportistas que tienen un futuro muy prometedor

NEREA AZURMENDI

**Compañeros de camino**

Diario Vascon argitaratutako artikulua (2014-05-16, ostirala)
Artículo publicado en el Diario Vasco (viernes 16.05.14)

Pertsona guztiek bere lekua duten gizarte garatu bat lortzea da proiektuaren azken ikuspegia. Eta Fundazioaren ikuspegia da batasuna eta berdintasuna sustatzea. Tokiko biztanleen kidetza-sentimendua erreala izan dadin lortzea.

## 10.5.2
## MISIÓN Y VISIÓN DEL PROYECTO

La Fundación por medio del Proyecto Cohesión social tiene como misión el desarrollo de su entorno por medio del impulso y progreso de la sociedad local. Pretende favorecer la unión entre las personas y dar lugar a una sociedad sin fracturas por colectivos. Desde un punto de vista intramuros se quiere impactar en las personas de ORONA incidiendo en actividades de sensibilización.

Para conseguirlo, Orona Fundazioa se centra en trabajar por la inclusión social de colectivos que se encuentran en riesgo de exclusión, trata de avivar el sentimiento de pertenencia de los locales y suscitar la conexión entre los diferentes agentes de su red de contactos dando paso al nacimiento de nuevas relaciones que ayuden al desarrollo y promoción de dichos agentes; así como a nuevas sinergias fruto de las cuales surjan nuevas iniciativas socialmente innovadoras y que multipliquen el impacto directo e indirecto de la actividad de la Fundación.

La cohesión social no sería posible sin la participación social y la predisposición de las personas a colaborar, por lo que la Fundación tiene como pretensión crear un grupo de personas de Orona Ideo que empiecen a desarrollar actividades de voluntariado.

La visión última del proyecto es conseguir una sociedad desarrollado en la que todas las personas tengan cabida.
La visión de la Fundación es fomentar la unión e igualdad.
Conseguir que el sentimiento de pertenencia de los locales sea real.

# 11 JARDUEREN ZERRENDA
# LISTADO DE ACTIVIDADES

Memoria honetan 2017ko jarduera "biziak" bakarrik zehaztu dira. Dagozkion proiektuaren barruan sailkatzen dira.

## 1. DIAMETRO 200

· **Busti lankideekin**

Oronako pertsonek bizimodu osasuntsua izan dezaten eta ariketa fisikoa egin dezaten bultzatzeko, Orona Fundazioak bere langileek "busti lankideekin" igeriketa-zeharkaldian parte har dezaten bultzatu du, parte-hartzaileen izen-emateak ordainduz. Hiru langilek osatutako talde batekin parte hartu zuen ORONAk enpresa gisa.

· **Enpresen Lasterketa**

Oronako langileek Enpresen Lasterketan parte hartzea sustatu zuen Orona Fundazioak. Oronako 24 langilek parte hartu zuten, sei taldetan. Jarduera horrek enpresa osasungarri bat lortzeko Fundazioaren ikuspegia bultzatzen du.

En esta memoria se explicitan solo las actividades "vivas" en el año 2017. Se clasifican dentro del proyecto al que pertenecen.

## 1. DIÁMETRO 200

· **Empresas que se mojan**

Con el fin de promover que sus personas lleven una vida saludable y con ello animarles a que realicen actividad física, Orona Fundazioa ha incentivado la participación de sus trabajadores en la travesía de natación "empresas que se mojan" abonando las tasas de inscripción de los participantes. ORONA tomó parte como empresa con un equipo formado por tres trabajadores.

· **Carrera de empresas**

Orona Fundazioa promovió la partición en la "Carrera de empresas" entre los trabajadores de Orona. El resultado fue la participación en la misma de 24 trabajadores que formaron seis equipos. Esta actividad fomenta la visión de la Fundación de avanzar hacia el concepto de empresa saludable.

Matiako adineko pertsonak eta ORONAko boluntarioak azken Orona Kontzertuan
Personas mayores de Matia y voluntarios de ORONA en la última edición del Concierto Orona



- **ORONA menua proiektua**

Gure Elikagai SL enpresak Diametro 200 – Slow kafetegiaren emakida du, eta, beraz, Orona Ideoko eta Lastaolako jatordu- eta kafetegi-zerbitzuak ematen ditu, bai ORONAko langileentzat, bai kanpoko bezeroentzat.

Orona Fundazioak proiektu osasuntsu baten alde egiten du, eta, horretarako, tokiko eta sasoiko produktu ekologikoak erabiltzen ditu. Gaur egun, 600 baserritar-familiak ekoizten dituzte Orona Ideorentzako elikagaiak. Ekoizle txikien sare hori hedatuz doa, ORONA hornitzeko helburua duten ekoizle, hiri-baratze eta nekazaritza-herrixka gehiago sartzen ari baitira. Horien artean, Kabaleko nabarmentzen da, zeinak, AGIFESekin sinergian, gaixotasun mentalak dituzten pertsonak hartzen baititu baratzako lanetarako, oso terapia egokia baita

- **Etxera eramateko janaria eta fruta officean**

Ekimen horiek ORONAko langileen artean kultura osasuntsua bultzatzeko neurrietako bat dira: Diametro 200 – Slow kafetegiak egindako janariak etxera eramateko aukera dute langileek, eta officean nekazaritza ekologikoko frutak izaten dituzte, otordu artean jaten dutena ahalik eta osasuntsuena izan dadin.

- **Diametro 200 – Slow kafetegiaren sustapena**

Orona Fundazioa, Diametro 200 – Slow kafetegiaren jarduera sustatzeko, Bioterra azokarekin lankidetzan aritzen da, eta azokak irauten duen egun bakoitzeko 16 menu-bonu (8 menu-bonu bikoitz) zozkatzen ditu; menu bakoitzak 13 €-ko balioa du, eta self servicean edota kafetegian jan daiteke. Kafetegia eta Diametro 200 proiektua bera sustatu nahi dira jendea kafetegira erakarrita.

- **IV. GAMA: Mihi berdea proiektua**

Elikadura-berrikuntzako proiektu erreal bat bultzatzen du jarduera horrek. HORECA sektorea produktu berriz hornitzea da helburua, inguruko jatetxeek mezclum ekologiko apartak izan ditzaten, adibidez.

Era berean, lanpostu gehiago sortu nahi dira Karabelekon. Karabelekoren lursailean gaixotasun mentalak dituzten pertsonak aritzen dira lanean, AGIFESek dinamizatuta. Lursail horietan, lehengaiez gainera, lehen kalitateko elikagai eraldatuak egin ahal izatea lortu nahi da.

Orona Fundazioa proiektu horretara elkartu da, aztertzeko zer bideragarritasun duten nekazaritza-sektoreko enpresa txikiek ekonomikoki, pertsonak lan-munduan txertatzeko

- **Proyecto menú ORONA**

Gure Elikagai S.L. es la empresa concesionaria de la Cafetería Slow – Diámetro 200 y con ello la encargada de suministrar los servicios de comida y cafetería en Orona Ideo y Lastaola, tanto para personal de ORONA como para clientes externos.

Orona Fundazioai apuesta por un proyecto saludable proveyéndose de productos locales, de temporada y ecológicos. En la actualidad, 600 familias de "baserritarras" o agricultores producen alimentos para dar de comer en Orona Ideo. Esta red de pequeños productores se está ampliando mediante nuevas incorporaciones de productores, huertas urbanas o agroaldeas con el objetivo último de proveer a ORONA, destacando Kabaleko que además, en sinergia con AGIFES emplea a personas con enfermedades mentales en la huerta, pues esta actividad es una terapia muy adecuada.

- **Comida para llevar a casa y fruta en el office**

Estas iniciativas se plantean como otro medio más para fomentar la cultura saludable entre los trabajadores de ORONA ofreciéndoles la posibilidad de llevar a casa la comida del menú diario elaborado por la Cafetería Slow – Diámetro 200, así como poniendo a disposición de los trabajadores en el office fruta procedente de la agricultura ecológica con el objetivo de que su alimentación entre horas sea lo más saludable posible.

- **Promoción cafetería Slow – Diámetro 200**

Orona Fundazioa con ánimo de promover la actividad de la Cafetería Slow – Diámetro 200 colabora con la feria Bioterra sorteando cada día de la feria 16 bonos-menú, 8 bonos-menú dobles por valor de 13 € cada uno, a degustar posteriormente tanto en su self service como en su cafetería. La idea es promocionar el espacio de cafetería y el propio proyecto Diamtetro 200 atrayendo flujo a la cafetería.

- **IV GAMA: Mihi berdea proiektua**

Esta actividad consiste en impulsar un proyecto de innovación alimentaria real. El objetivo es dotar al sector HORECA de nuevos productos, de manera que por ejemplo restaurantes de la zona dispongan de unos mézclum únicos en ecológico.

Asimismo, se pretende crear más puestos de trabajo en Karabeleko. Es conocido que la finca de Karabeleko ocupa a personas con enfermedades mentales bajo la dinamización de AGIFES. Se trataría de que le finca, además de materias primas fuese capaz de crear un producto alimentario trasformado de primera calidad.

eta ekologikoki aritzeko. Proiektu hori aurrera ateratzeko, elikagaien ekoizpenarekin eta kontsumoarekin erlazionatutako agenteekiko lankidetza bultzatu da, diziplina anitzeko ikerketa egiteko. Hori dela eta, Karabelekok zuzentzen duen proiektu honetan, lankidetzan ari dira Orona Fundazioa, Diametro 200 jatetxea, Basque Culinary Centerreko berrikuntza-saila eta nekazari ekologikoen Ernetuz enpresa.

- **Karabeleko: Baratzako terapia**

Karabeleko lursaila Hernanin dago, eta Diametro 200 – Slow kafetegiaren barazki freskoen hornitzaile nagusia da. Berezitasun bat du: gizarteratzeko arazoak dituzten pertsonek lan egiten dute han; zehazki, gaixotasun mentalak dituzten pertsonek.

Gainera, Karabelekok paisaia-balioa ematen dio Hernaniko hiri-inguruari, gertutasunezko merkatua bultzatzen du, eta biodibertsitatearen aldeko lana egiten du, barazki-, fruta- eta lekale-barietateak berreskuratzen baititu. Horregatik guztiagatik, Karabeleko Oronaren sukaldaritza-arloko barazki-hornitzaile nagusia izatea proposatu du Orona Fundazioak.

## 2. Kultura musikala

- **Jazzeko ikasleen kontzertua (EIJO)**

EIJO Big Band orkestra gaztea Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailaren babesarekin jaio zen 2014ko irailean, musika modernoa eta jazza egiten duen orkestra gazte bat izan zedin Euskadin.

EIJO Big Banden proposamena babesten du Fundazioak. Proposamen horretan, askotariko jazz-estiloak daude, eta moldaketak ere egiten dituzte, hala nola Mikel Laboaren Txoria txori ospetsuarena. Bandaren birak Orona Fundazioaren laguntza jasotzen du, eta, birako beste emanaldien artean, bat Orona Ideon egingo da, aire librean.

- **Zarzuela Victoria Eugenian**

Orona Fundazioak, Sasibil elkarte lirikoarekin batera, diruz lagundu zuen Donostiako Victoria Eugenia antzokian egin zen Bohemios zarzuelaren kontzertua (2017ko irailaren 8a eta 9a).

- **Martín Zalakain**

Pío Barojaren Zalakain abenturazalea euskal literaturako klasiko handian oinarritutako antzerki berri bat ikusteko aukera eman zuen Orona Fundazioak.

Orona Fundazioa se ha sumado a este proyecto con el fin de analizar la viabilidad económica, de reinserción laboral y ecológica del sector agrícola de pequeña dimensión. Para realizar este proyecto se ha promovido la colaboración con diferentes agentes relacionados con la producción y consumo de alimentos a fin de aportar multidisciplinaridad al estudio. Por ello, este proyecto liderado por Karabeleko cuenta con la colaboración de Orona Fundazioa, el restaurante Diámetro 200, el departamento de innovación del Basque Culinary Center y la empresa de agricultores ecológicos Ernetuz.

- **Karabeleko: Terapia mediante huerto**

Karabeleko es una finca situada en Hernani y el principal proveedor de verduras frescas de la cafetería Slow – Diámetro 200. Su peculiaridad radica en que es una finca trabajada por personas con problemas de inclusión social, más concretamente de salud mental.

Karabeleko, además aporta valor paisajístico al entorno peri-urbano de Hernani, fomenta el mercado de cercanía y trabaja por la biodiversidad recuperando variedades de hortalizas, frutas y legumbres. Por todo esto Orona Fundazioa propone que Karabeleko sea el proveedor de referencia en verduras en su área de restauración.

## 2. Cultura musical

- **Concierto estudiantes de Jazz.(EIJO)**

La EIJO Big Band es una joven orquesta, creada en septiembre de 2014, con el impulso del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, con el objetivo de dotar a Euskadi de una joven orquesta de alumnos de música moderna y jazz.

La Fundación favorece la propuesta de la EIJO Big Band que incluye los más variados estilos jazzísticos y que realiza además arreglos, como por ejemplo del conocidísimo tema de Mikel Laboa “Txoria Txori”. La gira de la banda cuenta con el apoyo de Orona Fundazioa, y entre la oferta de conciertos de la gira se incluye la celebración de uno en Orona Ideo, al aire libre.

- **Zarzuela en Victoria Eugenia**

Orona Fundazioa, junto con la Asociación lírica Sasibil, participó con apoyo económico en la celebración del concierto Zarzuela Bohemios en el teatro Victoria Eugenia de San Sebastián los días 8 y 9 de septiembre 2017.

Martin Zalakain dantza- eta musika-ikuskizuna da, literatura eta dramaturgia dantza-estilo preklasiko batekin konbinatzen dituena, eta gure herri-kulturako diziplina hori ulertzeko modu berri bat bilatzen duena.

Fundazioak 100 sarrera erosi zituen langileen artean banatzeko, eta, era berean, proiektuaren bideragarritasun ekonomikoari laguntzeko. Emanaldia abenduaren 17an egin zen Donostiako Victoria Eugenia antzokian.

## 3. Ondare ez-materiala

### 3.1. MENDIA

- **Euskal mendizaletasunaren historia**

Euskal Mendizaletasunaren Museoa Fundazioak (EMMOA) diziplina anitzeko ahalegin handi bat egiten du euskal mendizaletasunaren ondare historikoa zaintzeko eta gizarteari erakusteko. ORONA izan da, Fundazioaren bitartez, lehenengo laguntzaileetako bat Euskal Herrian hain erro sakonak dituen jarduera horren historia babesteko ekimen horretan. Orona Fundazioak interes berezia du ondare ez-materiala berreskuratzeko, eta, bereziki, mendizale zaharrenen testigantzak jasotzeko. Proiektu hori diruz laguntzen da.

- **Menditour Orona Fundazioa.**

Era berean, mendizaletasuna gazteen artean bultzatzeko, eta Bilbao Mendi Film Festivalen laguntzarekin, Menditour Orona Fundazioa zinema-jaialdia antolatu da hirugarren urtez jarraian. Orona Fundazioak sustatu zuen ekitaldia, eta Bilbao Mendi Film Festival jaialdiarekin eta Club Vasco de Camping Elkartearekin batera antolatu, Zineuskadiren laguntzaz. Erakunde onuraduna Club Vasco de Camping Elkartea da, zeina gazteek ezagut dezaten baitzuen helburu.

Zehatz-mehatz, Bilbao Mendi Film Festival jaialdiko mendiko zinemako filmak eman ditugu. Gazteentzako filmak, balioetan oinarritutako edukiak garatzen dituztenak aukeratu genituen.

Mendizaletasunaren balioak zabaldu eta jarduera osasungarriak sustatu nahi genituen. Horrez gain, gure artean hain preziatua den jarduera hori ORONAko giza kapitalari gerturatu nahi genion. Aurten, maiatzaren 10ean egin zen ekitaldi hori.

- **CVCEPHOTO**

Orona Fundazioa lankidetzan aritzen da Club Vasco de Camping Elkartearekin (CVCE), mendizaletasuna gazteen

- **Martín Zalakain**

